**BERAKO
MARATOI ERDIA**
Apirilaren 11n → 51**Moda**

Gehigarri berezia → 11-26

GIZARTEA → 38Udan Saharako haurrak
hartzeko aukera irekita**FERIAK → 28/46**Udaberriko Feriak
Lesakan eta Elizondon**GOIZUETA → 42**Bi urte eta gero saldu
dira lehen egur loteak**SARA → 48/49**27. Idazleen Biltzarra
apirilaren 5ean

Nafarroa osoan falta dira ordezkapenak egiteko pediatrik. Arazo horri aterabidea bilatzeko eskatuz, Bortzirietako Guraso Elkartearen ordezkariak Nafarroako Parlamentuan izan dira.

ERREPORTAJEA → 4-5

Pediatrik falta dira ordezkapenak egiteko

ELKARRIZKETA → 3**Hiruak Bat Landetxeen
Elkarteko lehendakaria**

Urteetan Sagrario Goñik izan duen ardura, Raket Ariztegi oiztarraren esku gelditu da orain.

BERTSOLARITZA → 10**Julio Soto gorritiarra
Nafarroako txapeldun**

Bere lehenbiziko txapela jantzi du Nafarroako Bertsolari Txapelketan.

KIROLA → 52**Angel Salaberria
pilotako epailea**

Goizuetarrak urteak daramatza pilota profesionalen epaile.

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoz

514 ALEKO IRABAZLEAK
 * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
 Asun Apezetxea | Oronoz-Mugairi
 * KALOTXA LOTEA
 Amador Txoperena | Igantzi
 * EREIN 2 LIBURU
 Itziar Iriarte | Narbarte
 * CAMELOT 2 SARRERA
 Amaia Goia | Bera
 * MARTIKO LOTEA
 Marisa Cuartero | Bera
 * XABI ABURRUZAGA CDA
 Iñaki Pikabea | Bera

ZOKKETAK ZORIONAK

titi txarteldun gutzien artean
sari hauek zozketatuko dira

**2 SARRERA
ARTIC
IZOTZ JAUREGIRA**
www.hieloartic.com

**LOTEA
KALOTXA
OPARIAK ETA
OSAGARRIAK**

**KAMISETA 1
ONIN ART**
www.oninart.com

**2 LIBURU
ELKAR**
www.elkar.com

TTIPI SASKIA

TTIPI-TTAPAKO MOTXILA
OSKAR ETA ANDRE ARROXA
LIBURUA
3 PUZZLE
TXAPELA BURUAN KAMISETA
PIRRITX ETA PORROTX
DVDa
ZORTZI KATILU
BETE ZORRI DVDa

DESKONTUAK

Denda hauetan eta aunitz gehiagotan!
ERABILI ZURE TXARTELA!



Urteetan Sagrario Goñiren esku egon den kargua Rakel Ariztegi oiztarrari egokitu zaio orain, eta urtarril akaberatik bera da Hiruak Bat Landetxeen Elkarteko lehendakari berria.

Anaiarekin batera Oizko Martiorneko borda landetxea kudeatzen du azken 12 urteotan eta orain arte «hagitz ongi» lan egin dutela aitortu digu. Baina hori aldatu egin da.

Ez du landa turismoaren momenturik onenean hartu ardurara, krisi ekonomikoak gogor astindu baitu sektore hau ere, baina halere, lanerako gogoz eta ilusioz dago.

Rakel ARIZTEGI | Hiruak Bat Landetxeen Elkarteko lehendakaria

«Elkarlanak aunitz laguntzen du eta krisi garaian oraindik gehiago»

G. PIKABEA | OIZ

Nolatan zabaldu zenuen landetxea?

Kasualitatez izan zen. Anaiak arazo bat izan zuen eta garai hartan jendea landetxeak irekitzen hasi zen eta guk ere gure baserri zaharra moldatzea erabaki genuen. Bi urte pasatu genituen obrak egiten eta 1998an zabaldu genituen ateak. Eta egia erran, hagitz gusturanga, lan polita eta garbia delako. Lagun aunitz eta bezero onak egin ditut.

Urteekin aldatzen ari al da landetxeen mundua?

Bezero motak aldatzen joaten dira. Hasieran, gazte taldeak etortzen ziren gehien eta orain, berriz, familia gazteak dira gehiengoak. Teknologia berrieke ere gero eta gehiago ibiltzen gara eta hau dena elkarrearen bidez ikasten dugu. Hortaz aparte, guk gihaurrek urteekin gauza aunitz ikasi dugu. Hasieran ez genuen fidantza eskatzen, eta errandakoa baino gehiago etorri gero, ez ginen deus erratera ausartzen...

Lehiakortasun handia al dago hemen inguruan?

Bai, badago. Lehenago lau etxe ziren eta orain 220tik goiti. Hiruak Bat elkartean 113 landetxe gaude eta elkartean ez daudenak bertze ho-



ARGAZKIA: TTAPI-TTAPA

Rakel Ariztegi oiztarrak urtarrilean hartu zuen Hiruak Bat elkarteko lehendakari kargua.

rrenbertze izanen dira. Batzuetan eskaintza haundiagoa da eskerra baino, beraz konpetentzia badago.

Krisi ekonomikoaren eragina somatu al da?

Bai, ikaragarri. Prezioak egokitzeke eskatzen dute bezeroek, eta hamabiren lekuan hamahiru etorri badira, hamahirugarrena ez kobratzenko... Badira krisi garaia izanagatik lan egiten den urteko sasoiak: Aste Santua, abuztua... Baina aurten hauetan ere zailagoa izan da.

HELBURU NAGUSIA

«Atzera ez egiteko lanean ari gara. Krisia dela-eta, jendea etsitzen hasia da, baina momentu hauetan bakarrik lan egitea ezinezkoa izanen dugu, eta elkartuak egotea hagitz garrantzitsua da. Helburu nagusia elkartean gaudenok segitzea izanen da»

Udan, adibidez, lehen uztailan eta abuztuaren betetzen ziren landetxeak, eta orain uztailan lan egitea kostatu egiten da. Gure sektorea ez da egunero behar den zerbait, oporraldi bat da azken finen eta horrek badu bere ondorioa.

Zer moduz hasi duzu lehendakari bezala ibilbidea?

Berritu beharra zegoen, Sagrariok urte aunitz pasatu baititu. Norbaitek animatu behar zuen eta egoera pertsonalak ho-

retarako aukera ematen didanez, ni sartu naiz. Ezinezkoa izanen da Sagrarioren hutsunea betetzea, baina lan-mahai ederra dugu, gogo eta ilusioa baditugu eta ahal dena egiten saiatuko gara. Dena dela, oraindik ez zait aunitz egitea tokatu, ikasten ari bainaiz. **Zein egoeratan dago elkartea?**

Atzera ez egiteko lanean ari gara. Krisia dela-eta, jendea etsitzen hasia da, baina momentu hauetan bakarrik lan egitea ezinezkoa izanen dugu eta elkartuak egotea hagitz garrantzitsua da. Baditugu proiektu batzuk esku artean, adibidez, kudeaketa programa bat egitea, baina helburu nagusia elkartean gaudenok segitzea da. Etsita egon arren, aurrera egin beharra dago, garai hobeak etorriko dira. **Zerbait gaineratuko zenuke?**

Elkartean ez dauden landetxeak elkarrearen inguruan informatzera animatuko nituzke. Euren aldetik joan daitezela eta ikus dezatela zer dagoen, eta horrela ikusiko dute interesatzen zaien ala ez. Gauza nahiko zaila dago denentzat eta bakarrik egonda, oraindik zailagoa izanen da. Elkarlanak aunitz laguntzen du eta krisi garaian oraindik gehiago.

OSASUNA → NAFARROAKO PARLAMENTUAN IZAN ZIREN MARTXOAREN 17AN

Pediatra bakarraren ordezkapenen arazoa moldatzea eskatu dute Bortzirietako gurasoek

«Gure haurrak ez dira bere adinak eskatzen duen bezala atendituak», uste dute Guraso Elkarteek

Bortzirietako ikastetxeetako Guraso Elkarteek ordezkariak Nafarroako Parlamentuan izan zen martxoaren 17an, zonaldeko pediatria zerbitzuari buruzko zenbait eskari egiteko Osasun Batzordeari. Eskari nagusia: Lesakako Osasun Etxeko pediatria titularraren ordezkapene-

tako arazoa lehenbailehen moldatzea, adinaren arabera osasun-laguntza publikoa eta kalitatekoa bermatuz eta ekitateko printzipioa errespetatuz. Baina ez da bortz herrietako arazoa bakarrik. Nafarroa osoan falta dira ordezkapenak egiteko pediatriak.



Belen Compayns, Lesakako Osasun Zentruko pediatria bakarra lanean, B

Aitor AROTZENA

Bortzirietako ikastetxe guzietako Guraso Elkarteek sinatutako idatzia igorri zitzaion Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari eta Nafarroako Gobernuko osasun kontseilariari joan den urteko irailean. Martxoaren 17an Parlamentuan izan zen bortz herrietako gurasoen ordezkariak. Berako Toki Ona Institutuko, Ricardo Baroja ikastetxe publikoko, Labiaga ikastolako, Jesusen Bihotza ikastetxe eta Mukixu Haur Eskolako, Lesakako Irañ ikastetxe publikoko eta Tantirumairu ikastolako eta Arantza, Igantzi eta Etxalarko ikastetxeetako Guraso Elkarteek egingo idatziak dioenez, «azken urte hauetan pediatria zerbitzu honek ez du behar den bezala funtzionatzen, zenbaitetan gure umeak pediatrik atenditu beharrean, etxe-ko medikuak atenditzen dituelako». Familia me-

dikuen ezaguera, profesionalitatea eta borondate ona baloratu arren, Guraso Elkarteek uste dute «gure haurrak ez direla bere adinak eskatzen duen bezala atendituak, hau da, bereziki pediatria zerbitzuarekin». Gurasoek gogoratu dutenez, pediatrik oporrak hartzen dituelarik, edo etortzen ez den berte batzuetan, dagokion pediatriko ordezkapena ez zaio jartzen, eta kasu horietan familiko medikuak egiten ditu ordezkapenak. «Etxeko mediku hauek beren erri kopurua haundiegia dutela badakigu —diote gurasoek— eta horrek oraindik kezka garrigo egiten du gure haurrei ematen zaien osasun-laguntza».

1.400 HAUR BORTZIRIETAN

Guraso Elkarteek jakinarazitakoaren arabera, Bortzirietako 1.400 bat haur dira atentzio urri hau jasotzen dutenak, «eta horrek bizi-tokiaren ara-

berako diskriminazioa» suposatzen duela uste dute. Izan ere, ordezkapenena baino sakonagoa da arazoa. Atentzio egokia emateko, Bortzirietan gaur egun dagoen haur kopuru horrekin, berte

pediatria batek lan egin beharko luke, egun erdiz. Eta horrek, neurri batean, ordezkapenen arazoa ere moldatuko luke. Nafarroan, 1.000 haur baino gehiago artatu behar dituzten eremuetan

pediatria errefortzoak paratzea onartua dago, haur kopuruaren arabera. Honela, 1.000 eta 1.100 haur artean daudenean, astean 7 orduko laguntza beharko litzateke. 1.100 eta 1.200

MOZIOA AURKEZTUKO DU NABAIAK PARLAMENTUAN

«Neurologoaren pazienteak familia-medikura bideratuko balitz eskuak burura eramanez genituzke: pediatriarekin horixe gertatzen da»

Bortzirietako gurasoen ustez, egoera honek ondoriok txarrak ditu, alde batetik etxe-ko medikuek ziurtasunik gabe lan egiten dutelako eta larrialdi zerbitzuetara bideratzen dituztelako, berez larritasun sobera ez duten kasuak. Larrialdi zerbitzuetan ere haserretu egiten dira kasu arruntak ailegatzen zaizkienean eta bien bitartean, haurrek ordu guttiren barrenean atentzioa hartu beharrean, denbora gehiago pasatzen dute. Batzuetan, medikuek egun bat berandua go ikusten dituzte haurrak. NaBaiko ordezkariak ados agertu dira Bortzirietatik eramandako eskariekin, eta ez dute ulertzen hainbertze urteren ondotik arazoa ez moldatzea. Adibi-

de gisara, «neurologo batek bere pazienteak ez dituela familiako mediku batera bideratzen», erran zuten, «eta hori gertatuko balitz, eskuak burura eramanez genituzke, baina pediatrian horixe gertatzen da». Parlamentuan mozioa aurkeztuko du NaBaik, egungo pediatria zerbitzua mantentzea eskatuz Osasun Departamentuari, erran nahi baita «Osasun Zentro bakoitzean pediatria titulatuak izatea eta baja, opor edota atsedendietan, ordezkapenak bermatuz». Pediatria bakoitzak 800 haur edo, gehienez, 1.000 artatu beharko litzatekeela uste du NaBaik. Gainerako talde parlamentarioek ere bidezkotzat jo dituzte Bortzirietako eskariak.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Berako kontsultan.

haur bitartean daudenean, 10 ordukoa izanen litzateke errefuertzoa.

ESKUALDEZ ESKUALDE

Gaur egun, Bortzirietan 1.400 haur daude eta horrek lanaldi erdirako

bertze pediatria bat eskatzen du. Baztanen haur kopuru berdintsua dute (1.290 haur) eta han lortua dute lanaldi erdirako bertze pediatria baten errefuertzoa, Ultzamatik etorriko litzatekeen pedia-

tra baten bitartez. Baina oraindik ez dela hasi aipatu digute Elizondoko Osasun Zentrutik. Baztanek haur kopuru eta baliabide berdintsuak izanirik, Bortzirietan logikoa da ikusten dute lanaldi

erdiko bigarren pediatria bat Elizondorekin banatzea, eta Ultzamakoak hurbilagoko bertze zonalde batzuetan lan egitea. Doneztebeko pediatriak Malerrekako 804 haur artatzen ditu. Lanaldi osoko zerbitzua eskaintzen dute eta «herriak nahiko sabakabanatuak» badaude ere, ongi moldatzen direla uste du losu Perez Aranburu pediatriak.

Leitzako Osasun Zentruko pediatriak Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako 533 haur artatzen ditu, bost orduko lanaldian. Baina gaur egun pediatria lana egiten duen familia medikua eszedentzian dago, eta bere ordezkoa mediku orokorra da. Halere, badirudi plaza hurrengo oposaketetara atera dela eta horren arabera, lanaldi osoz ariko litzateke pediatria titularrak bat Lekunberrin eta Leitzan, eta astean egun batez, Goizuetan.

Arazoa ez da oraingoa, duela urte batzuk ere Bor-

tzirietako Osasun Kontseiluaren eskutik, Parlamentutik pasatu baitzen pediatriaren arazo hau, Lesakako Osasun Zentroaren handitzearekin batera. 2004an zonaldekako haur kopuruen azterketa egin zen eta, orduan, 1.100 haur inguru zeuden Bortzirietan eta 7 orduko errefortzua seinatu zitaion. Orduan, Doneztebeko zonaldeko pediatriak egin behar zuen errefortzu hori. Ez zen soluziorik egokiena inondik ere, Bortzirietan aritu behar zuen orduetan Doneztebeko pediatria zerbitzua atenditu gabe geldituko baitzen. Kontuak kontu, denbora honetan ez da pediatria errefuertzik izan Bortzirietan. Orduan, «pediatriak ezin aurkituz» zebiltzala adierazi zuten Nafarroako Gobernuko Osasun Sailelari bat Lekunberrin eta Leitzan, eta astean egun batez, Goizuetan.

Arazoa ez da oraingoa, modu beretsuan segitzen dugu.

BERTZELAKO EKIMENAK

845 sinadura bildu ditu Etxalarko Guraso Elkarteak Bortzirietan

Etxalarko Guraso Elkarteak, bere aldetik, eskari beretsuarekin sinadura bilketa egin du eta 845 sinadura lortu ditu Bortzirietan. Horiek ere sartu zituzten Parlamentuko erregistroan. «Gurasoak garelako, gure seme-alaben osasunaz kezkatzen gara». Holaxe hasten zen sinadurak biltzeko idatzia. «Zonaldean dagokigun pediatria zerbitzua maiz ez da betetzen, pediatria titularrak bere oporrak edota eskubide osoz lanera etortzen ez denean, mediku ordezkorik gabe gelditzen garelako. Horigertatzen denean, gure seme-alabak herriko medikuengana eraman behar ditugu, mediku honen eta herriko osasun zentroaren lan plangintzan zailtasunak ezarri». Egungo egoera onartezina iritiz, «pediatriarik gabe gelditzen garen egunean pediatria ordezkoa pa-

ratzea exijitzea izan da sinadura bilketaren helburua».

Angela Irisarri, Etxalarko Landaginar Guraso Elkartearen kideak aipatu digunez, «gure eskaria xinplea da. Erraten digute ez dela Bortzirietako arazo bakarrik, Nafarroa eta estatu osoa dela. Aurrekontua bada lanpostu horiek betetzeko, baina pediatriak falta direla eta betetzeko postuak alde guzietan daude. Horregatik, betetzen hasten direnean, Iruñaldekoak betetzen dira lehenik eta herri txiki-takoak hutsean gelditzen dira beti. Arazoa ez da oraingoa, baina administrazioak ez dio soluziorik ematen». Orokorrean, pediatria eskasia handia dago Nafarroan eta zenbait herritan lan hori egiten dutenek ez dute pediatria titulurik eta kanpoko pediatriak kontratatzen hasi dira.



ARGAZKIA: D. NOTICIAS

Bortzirietako gurasoen ordezkaritza martxoaren 17an Nafarroako Parlamentuan. Ezker-eskuin, Angela Irisarri (Etxalar), Ainhoa Saldias (Igantzi), Marta Altzugarai (Lesaka), Juan Manuel Aranibar (Bera) eta Xabier Lucia (Bera).

**Nire txanda**

Luis GARDE

Loteria tokatu zait

Ufl Ezin nuen gehiago presio honekin. Bai, ni naiz. Loteria tokatu zait. Orduan, Miamira bizitzera joan aitzin, zerbait egin nahi nuke gure herriaren alde. Bortaxo berreraikitzea, agian? Karriketan barna bolobolo dabilen nahia da («lo mejor p' al pueblo»). Ados, baina, baina... Kristaua ez izan arren, pekatari honek mantentzen duen kontzientzia txikiak galarazten dio gaztetxoei koma etilikoak saltzea. Beraz, erabaki dut hiru plantako Kultur Etxe erraldoia Donezteben eraikitzea. Bertan horrelako dohainikako akitibidadeak antolatuko ditut: haurrentzako musika eta kirolak, maisu-maistrentzako ingelesa, pikoletontzako Euskal Literatura eta Macramé, mutil-zaharrentzako ligatzeko teknikak, dibortziatu berrientzako sukaldaritza, etorkinentzako euskara, eta probetxu (ekonomiko) exkaxeko bertze hainbertze gauza. Sentitzen dut, herrikide maiteok. Ez duzue suerterik izan. Hurrengoan beharko.

Miamira bizitzera joan aitzin, zerbait egin nahi nuke gure herriaren alde

Ezpala

Aitor AROTZENA

Seme-alabak albaitariarenera

Semea muki dariola eta alaba sukarrarekin pediatraren gano jo dugu. Bera ere etxean erixko dagoela eta familia-medikuak hartuko gintuen, baina larrialdi batera ateratu da. Albaitariarenera txanda esperatu dugu. Dortoka mantso-mantso ateratu da eta hartu gaitu albaitariak. Urduri, ez daki umeak nola artatu eta komarkalera bidali gaitu, urgintzietara. Katua gu ateratu zain dago, futaka.

Nabarmentzekoak

Julio SOTO
Nafarroako txapeldunaJuan Miguel ORMART
Elizondoko Iturri-EderraMiguel ZABALETA
Bertsolari aresoarra

Nafarroako bertsolari txapelketaren finala martxoaren 20an egin zen Lesakan eta bikain nagusitu zen Julio Soto gorritarra. 24 puntuko aldea ateratu zion bigarren sailkatuari.

Iturri-Ederra elkarteak Mendeurrenaren Iturria inauguratu zuen martxoaren 21ean Elizondon. Urteetan elkarteak langile izan den Ormart omendu zuten eta beraz ireki zuen iturria.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean aritutako lehen bertsolari nafarra izan zen. 1962an, Miguel Arozamena lesakarrarekin batera aritu zen Donostiako Astorian.

Atzera begira → 1993.04.08 / TTIPI-TTAPA 107. zbk



Lapurarren deportazioak gogoratu zituzten Saran 1993an

1793an, frantses iraultzaileek hamabi herritako 4.000 lapurtar Landetara deportatu zituzten eta horietatik 1.600 hil. Bigarren mendeurrena gogoratzeko, 1993ko Bazko Astelehenean omenaldia eskaini zitzaizkien Saran, Sarako Gaztetxea eta Xipri Arbelbide antolatzaile nagusi zituen ekitaldian. Idazle eta kazetariak zioenez, «aipatu gabe ezin da utzi Lapurdi eta Sarako historiako hein hortako gertakari bat».



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Urte guztiko mozorroa

Joseba URKIOLA (Leitza)

l garo dira jada aste batzuk ihauteek agur esan zutenetik. Asko izan dira plazaratutako ideiak. Jendea imajinazioz jantzia dagoela ezin uka. Nork esan behar zuen Leitzako karrketan Piraten Ronkalesa edota Tolosako Frontoi Kafearen goikaldean King-Kong ospetsua ikusiko genuenik?

Atsaure hauek dena den egun bateko jan iturri, egun bateko menu berezi ez dira. Jendearen barre eragile eta gozamen iturri. Badira urteak etorri eta joan, beti present dauden mozorroak. Burukomin eragile, haserre sortzaile eta zer pentsatu handixkoa ematen dutenak dira. Klima aldeketarena da

«Gobernuak men egin zion bankuen eskaerari. Gauza bitxia benetan. Herria dirudun jaun txit agurgarriei laguntzen»

horietako bat. Zalantzik ez da planeta eraldatze konstante batean murgildua dagoela. Aurrekoan Haitiko triskantzak aipatzen bagenuen, ezin ahaztu oraingoan Txile. Berriro ere istorio berdintsua, eskena berak, soinu banda antzekoa. Desberdintasuna, Txile XXI. mendean nahikoa ondo barneratua dagoela eta bertako herritarrek atzerrian oihartzun handia dutela. Honek asko esan nahi du laguntzak lortzerako orduan.

Argi dago eguraldiak aspaldidanik bere atsaure partikularra egoki egina duela. Gutxitan abisatzen du baina Richter etxeko anaiaren batek atea jotzen duenean, erne ibili. Batzuk oraindik ez dute sinesten eguraldi aldaketaren aferan hau serioa denik. Auskalo tsunamien, lurrikaren, haizen zurrunbiloen eta ziklogenesi hauskorren konpartsek zenbat triskantzak eragin dituzten. Hala jarraitzeko asmoa dute gainera.

Banku pribatuena da beste atsaurea. Orain urte eta erdi inguru; ardi larrua jantzita, negar malkoa begi nian zutela, makurtuta erabat zurbil, Zapateroren Gobernuari dirulaguntza eskatu zioten banketxeek. Gobernuak men egin zion eskaerari. Gauza bitxia benetan. Herria dirudun jaun txit agurgarriei laguntzen. Orain urte batzuk pentsa ezina litzateke hori. Galiarak erromatarrei, esklabuak faraoiei edota indioak bakeroei laguntzea bezalakoa. Pelikula bat ematen du. Orain aste batzuk, inauterietan hain justu, Emilio Botin, 180 graduko irribarrea eta eskuak gozo-gozo igurtziaz, prentsaurrea atera zen. Hau xeke bere esanak: «2009an Santander Banketxeak 9.000 milioi euroko irabaziak izan ditu». Ez gehiago eta ez gutxiago. Ziur gutako askok etxean dauzkagun Casio kalkulagailuetan ez direla hainbeste zenbaki sartzen. Hori bai mozorroa irakurle. Leitzako edo zuen inguruko plazatik begira jarri eta ezetz horrelakorik ikusi. Negar malkoa kiloko lingote bihurtua. Asmakuntza garrantzitsuak gizaldiero izaten dira, baina horrelakoak gutxi dira azkenaldian. Hurrengo urteko ihauteetako badaukazue beste ideia bat. Baina lasai, oraindik asko falta da eta!!!

Abizenak euskal grafiaz

Xanti BEGIRISTAIN (Iruña)

Orain dela egun gutxi Berria egunkarian irakurri nuen, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak *Guk abizena, zuk?* izeneko kanpaina jarri duela abian, euskal abizenak modu ofizialean eta toki guztietan era akademikoan erabil ditzaten nahi duten guztiek.

Gai honi buruz esan nahi dut, nire ustez, Euskal Herrian egundoko atzerapena daramagula. Behar bada ni inozo samarra izanen naiz, baina, egia esan, frankismoa bukatu zenean, pentsatzen nuen Euskal Herriko jende euskaldun, abertzale eta batez ere euskaltzale guztiak, ipurdia galduko zuela bere lehendabiziko bi abizenak, euskaldunak direnean, jakina, modu akademiko ofizialean jartzeko ohiko agiritan, nahiz eta oraindik agiri horiek ez izan independentistok nahi ditugunak.

Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da, eta horretaz ohartzeko hauteskunde garaian hautagai zerrendei erreparatzea baino ez dago. Horikusiko ditugu mota guztietako alderdi «abertzale», «euskaltzale» eta «independentisten» pertsonen abizenak espainierarik zuzenenean idatzita (Hegoaldean, kasu honetan), hala pertsona oso ezagunak nola arruntak, eta, antza denez, lotsa handirik gabe, zeren eta horrelako gertaerak behin eta berriz errepikatzen baitira hauteskunder zuzenak. Beste horrenbeste pasatzen da lantoki, udaletxe eta abarreko langile zerrenda gehienetan ere.

Nik, egia esan, auzo-lotsa izan ohi dut horrelakotan eta baita amorratio ikaragarri handia ere. Lehen adierazi dudak bezalaxe, nik uste nuen jende gehienak erakutsiko zuela beste jarrera egokiago bat bere abizenekiko, baina, argi eta garbi dago oso oker nengoela. Zergatik izanen ote den? Auskalo! Alferkeria?, utzikeria?, kontzientzia falta?, ohitura okerra?... Nik ez dakit.

Kontua da, jende erreferentzial artean egunero ikusten ditugula horrelako adibide ez oso eredu-garriak, konparaziora, Karlos Arguiñano, Berasategui, eta abar.

Ea, bada, UEMAren kanpaina honekin, jende asko animatzen den bere euskal abizenak era akademiko egokian idaztera, instantzia ofizial guztietan.

«Hor ikusiko ditugu mota guztietako alderdi «abertzale», «euskaltzale» eta «independentisten» pertsonen abizenak espainierarik zuzenenean idatzita, hala pertsona oso ezagunak nola arruntak eta, antza denez, lotsa handirik gabe»

Irakurleak mintzo

Euskara Mankomunitateko plangintza eta aurrekontua

ARALAR

Aldizkari honetan argitaratutako bi idazkiren bidez, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko 2010eko plangintza eta aurrekontua eztabaidatzeko eta onartzeko orduan, Aralar alderdiaren ordezkariak izan duen jarrera «onartezina, lotsagarria» aipatu da.

Hasteko, hartu diren erabakiak Berako Udalaren egoera ekonomiko larriaren aitzinean hartu dira, 2010erako diru-sarreraren aurreikuspena nabarmen etorri baita beheiti, 220.000 euro baino gehiagoko murrizketa izanen baita aurtengo diru-sarretan.

Argitu behar da murrizketa hauek ez diotela bakarrik Euskara Mankomunitateko aurrekontuari eragiten, Udaleko arlo guztiei baik. Horrela, euskararen alorrean bezala, antzeko neurriak hartu behar izan dira kulturako aurrekontuan, kirolekakoan, bestetan, turismoan, pertsonal berriaren kontratazioan...

Berako Udalean austeritatea da nagusi alderdi batzuentzat. Austeritatea, baina, ez da zuhurkeriarekin identifikatu behar. Austeritatea ez da guti gastatzea,

inolako irizpiderik gabe ez gastatzea baizik.

Aralarrek Bortzirietako Mankomunitatean Berako Udalak gehien goz erabakitako irizpideak defenditu ditu, udal ordezkariak garen neurrian parte hartzen baitugu mankomunitatean. Egoera larriaren aitzinean, administrazio guztiek neurriak hartzeko beharra sumatu dugu, eta hori bera defenditu dugu. Ditugun baliabide eskasak ahalik eta modu orekatuenean antolatzen saiatzen gara.

Euskara lehentasunezko gaia da Aralarrentzat, eta halaxe jokatzeko dugu, ez bakarrik Mankomunitatean, baizik eta eguneroko jardunean. Euskararen presentzia normalidadera ekartzeko aritzen gara. Euskararen normalizaziorako neurriak hainbat esparrutan ematen dira Udaketik ere, hala nola, Haur Eskolan, Musika Eskolan, kultura, kirola, aisialdia... eremuetan, edo UEMAn sartzeko erabakian, adibidez.

Egoera ekonomikoaren larritasuna ikusirik, datu batzuk emateko beharra ikusten dugu:

- Berako Udala, gaur egun, hainbat mailegu ordaintzen ari da. 1996tik honat, guztira, 1.821.202 euro (300 milioi pezeta). Aurten, konparazio baterako, 219.494 euro pagatu beharko ditugu, amortizazio gastuetan. Honderreko hilabeteotan, gainera, 650.000 euroko berte mailegu bat eskatu behar izan dugu, herrian egin diren

azkeneko obrak ordaintzeko.

- Mankomunitatearen diru-sarretan, Berako Udalak % 43,7ko parte du. Joan den urtean, 121.335 euro (20 milioi pezeta inguru), eta aurten 78.867 euro izanen da.

- Udalaren diru-sarrek 220.000 euro baino gehiagoko jaitziera izanen dute 2010ean.

- Nafarroako bertze eskualde batzuetako Euskara Mankomunitateara begiratzen badugu, ikusiko dugu Sakanan, biztanle bakoitzeko, 20,47 euro eman zirelaiaz, Malerrek 19, Baztanen 15,7, Berriarren 8,61 eta Barañainen 5,87. BORTZIRIETAKO MANKOMUNITATEAN, BIZTANLE BAKOITZEKO 30 euro.

Bortzirietako Mankomunitatean, Berako Euskara Batzordean, aholkularitza batzordeko kideekin egin diren bileretan garbi plazara-



Bota bertsoa

Iñaki ALEMAN (Iruñita) • Doinua: Mutil koxkor bat itsu aurreko

Nafarroako txapeldun berriari

Zorionak Julio amesten zendun txapel hori duzu jantzi merezimendu guztiarekin txapelketa irabazi ta tabladoan bertso kantatzen zein ongi duzun ikasi bi gauz batera egin dituzu hau nola adierazi zuk zeuk bertsoan gozatu eta entzuleak gozarazi.

Baserritako klasea eta estudioak dituzu hain bertsolari gazte ta onak ez dira izaten usu baina txapela irabazita errezena egin duzu uda partean herririk herri plaza plazaz pausu pausu zergatik zaren gure txapeldun bertan demostra ezazu.

Erredakzioaren Oharra

ttipi-ttapa

Aitzineko alean Gozone Rekondo (EHE) sinatutako idatzia, Gozone Rekondok bere izenean partikulariki idatzitakoa zen, eta ez Euskal Herrian Euskaraz erakundearen izenean.



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Nafarroan bertsoari-tza goraka doa, eta gazte mordoia dator. Tafalla, Agoitz eta beste eskualde askotara iritsi da bertsoa, eta lorpen handia da. Erdaldun jendeare ere iritsi zaio zerbait ospatu denaren berri. Iruñean ari naiz lanean eta lanean kide batzuk galdetu didate ea zer den bertsoaren kontu hori, Nafarroako jotzen antzeko zerbait ote den, alegia, oihartzuna izan du».

«Bakarrik eta etxetik milaka kilometrotara nengoela, hazi nintzen tokiez oroitzen nintzen eta toki berezi horiekin liburu bat egitea erabaki nuen (...) Nire haurtzaroa baso eta mendi zoragarri hauen artean joan zen, harat-honat ibiltzen nintzen kabien bila (...) Askotan ez dugu baloratzen gure inguruan dagoenak duen esanahia, bizi garen tokitik aldentzen garen arte».

Migel Mari ELOSEGI
Leitzako bertsoaria
HITZA, 2010.03.25

Ander OLAIZOLA
Goizuetako argazkilaria
D. NOTICIAS, 2010.03.23

11 galdera labur

Nolako esperientzia izaten ari dazure lehenbiziko pelikula?

Oso polita, gauza berri askorekin. Ez nuen mundu hau ezagutzen eta bitxikeria asko aurkitzen ari naiz.

Zein paper duzu *Baztan* filmean?

Kattalin izenekoa emakume agote bat naiz lehenbiziko zatian. Gainerako zatietan oraindik ez dakit.

Antzerkian ere ibilia zara, ez?

Agian San Juanetan suak eta gero egiten den antzerkiaren ariko zara. Hortan bai parte hartu izan dudala; baina ez dut inoiz gauza serioirik egin.

Ama artista izateak izan al du eragirik zuzine/antzerki mundua gustatzearrekin?

Ez dakit ba! Pelikula egitea kasualitate hutsa izan zen. Baina asko gustatzen ari zait.

Famatu izan nahiko al zenuke?

Ezta pentsatu



Jone LIZARTZA → Arizkongo gaztea

ere! Ez nuke aguantatuko kaletik joan eta jendeak ezagutzea, eta prentsak zuri buruz edozein gauza asmatzea. Baina lasai nago, ez naiz hunketuan famatu bihurtuko!

Aktore eta film bat?

Zerbait erratekotan, *Brave Heart*. Aktore bezala, berriz, Adrian Brody, aunitz gustatu zitzaizten *El Pianista*.

Zer moduz doaz ikasketak?

Gustura nago nire emaitzekin.

Zer ikasi nahi duzu gerora?

Betiko galdera; ez dakit ba! Seguraski ingurugiroarekin zerikusia duen zerbait, edo energia berriztagarriekin.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Arratsaldea libre dudanean, siesta egin edo kanpora ateratzea izaten da nire dilema. Asteburuetan, lagunekin egon eta bestara ateratzen naiz.

Goia Sariak, Oskarrak... Noizbait halakorik pasatu al zaizu burutik?

Buff! Ez dut uste inoiz halakorik irabaziko dudarik...

Zein dira zure ametsak?

Hurbilean pentsatzen, pelikula ongi ateratzea nahiko nuke. Hemendik urte batzuetara karneta atra; unibertsitatera Bartzelonara joan eta katalana ikasi; InterRaila hartu eta lagunekin bidaiatu... Pixket zahartzen hastekin Arizkunen etxe bat egin eta hipoteka ordaintzen hasi!

KULTURA

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Julio Sotok jantzi du txapela, buruz burukoaren beharrik gabe

Zortzikotea ederki aritu zen, eta Soto koxka bat gorago

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Bildu izan da aurteangoan Nafarroako Bertsozale Elkarteak Nafarroako 39. Txapelketarako hautatutako leloa eta martxoaren 20ko finalean gauza ugari bildu zituen bertsolaritzak. Hasteko, 1.200 ikusle bildu ziren Lesakako pilotalekuan. Izan ere, Elizondoko Lur dantzalekua tiki geldituta, lekuz aldatu da aurten, baina Internetez nahiz saltoki guzietako sarrerak asetebe lehenago agortuak zirela kontuan hartuz, bertze lekuren baten bila ere hasi behar ko da.

24 PUNTUKO ALDEA

Urteetan bertso eskoletan egindako lanaren uzta bildu zuena Julio Soto izan zen. Hiru urtez eskolartekoan txapeldun izan zen ttitikitan, Silveirarekin buruz buruko gogoangarri baten ondotik azpitxapeldun izan zen iaz Gorritikoa, eta Euskal

Herriko txapelketako finalerdietan ere sartu zuen burua. Aurten ez dio Nafarroako txapelari aldegiten utzi eta berekin bildu du, saio dotorea egin ondotik. Ez zen denepatearen beharrik izan: 20 puntu edo guttiagoren aldea dagoenean jokatzeko buruz burukoa, eta Arkaitz Goikoetxeari 24 puntuko aldea atera zion. Lekunberrin bizi den oiar-tzuarrarentzat Nafarroako lehen txapelketa zen, nahiz eta Gipuzkoa eta Euskal Herrikoetan esperientzia izan.

Podiumeko hirugarren koxka Estitxu Arozenarentzat izan zen. Hiru urte txapelketatik kanpo egon ondotik ederki aritu zen lesakarra, finaleko emakume bakarra. Doi-doi, puntu erdiagatik sailkapenean aurre hartu zion Oskar Estangari Xabier Legarretak. Aranokoak saio erregularra egin zuen, akatsik gabea eta arrazoiez ongi hornitua. Seguruenik jarraitzaile gehien bildu zuena, eta dudarik gabe, animorik gehien bildu zuena Eneko Lazkoz izan zen. Lehen finala zen Etxarri-



ARGAZKIAK: BERTSOZALE ELKARTEA ETA TTIPI-TTAPA

Goian aurten lehen aldiz Nafarroako txapela jantzi duen Julio Soto gorritiarra eta behean zortzi finalistak: Legarreta, Lazkoz, Arozena, Estanga, Soto, Zelaieta, Terreros eta Goikoetxea.

koarentzat eta maila eman zuen hasieratik bukaeraraino. Sailkapena ixten, Xabier Terreros lesakarra eta, karrezilla hartuta etorria zen Julen Zelaieta beratarra izan ziren.

TXAPELA EUSKAL BASERRITARRARENTZAT

Julio Sotok euskal baserritarrei eskaini ziren bere lehenbiziko txapela, euskara eta bertsolaritzari eutsi diote-

lako: maite nautenen baimenarekin/ nire txapela berari/ garapenaren aroan sarri/ mespretxatu izan dena-

ri/ euskal kultura bengan zer den/ erakutsi didanari/ bertsolaritza egunerokol/ jaki izan duenari/ euskal baserritarrari.

SAILKAPENA

Julio SOTO (Gorriti)	555,5 p.
Arkaitz GOIKOETXEA (Lekunberri)	531,5 p.
Estitxu AROZENA (Lesaka)	517 p.
Xabier LEGARRETA (Arano)	496,5 p.
Oskar ESTANGA (Gainza)	496 p.
Eneko LAZKOZ (Etxarri-Aranatz)	488,5 p.
Xabier TERREROS (Lesaka)	481 p.
Julen ZELAIETA (Bera)	481 p.

saroha
geologia oinotegia

7º de Arriaga 25 baxo 1948 63 08 99
48700 Bera (Navarra) www.sarobe.net

arropak · maindireak
mantak · nordikoak
toallak · kortinak
alfonbrak

Goya
Bera

Alzate, 5 · Tel: 948 630 083

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua

© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

GIZARTEA → GAZTEAK KEZKATUAK

Guardia zibil eta foralen jokabidea salatu du Kaxerna Gaztetxeak

Prentsaurrekoa eskainiko du asteazkenean udaletxean

TTIPI-TTAPA

«Gure herrian polizia-ren presioak goiti egin du». Horrela salatu du Kaxerna Gaztetxeak. Bere hitzetan, «azken hilabeteetan ostatueta guardia zibilek egin dituzten ibilera eta probokazioez gain, orain polizia foralak eta guardia zibilak modu itogarri dabilta gure artean». Halaber, «uniformez eta zibilez, drogaren aurkako aitzakiarekin herritarrak modu desproporcionatu batean kriminalizatuz» dabilta kritikatuta du Gaztetxeak.

Egoerarekin «nazkatuak» daudelako asteazken honetan, martxoak 31, prentsaurrekoa eskaintzeko da Gaztetxea Herriko Etxean, 12:00-etan. Idatzi bat ere kaleratu du eta dagoeneko Udalaren, herriko 40 komertzio eta eragileren eta 168 norbanakoren atxikimendua jaso du.

Dantza ikastaroa

Plazetako ohiko eskual dantzak ikasteko helduentzako ikastaroa antolatu du Gure Txokoa Dantza Taldeak. Dantza-tzen ez dakitenei edo ia ez dakiten 16 urtetik goitikoei dago zuzendua eta

apirilaren 9an hasiko da. Aldaketarik ezean, bi hilabetez zortzi klase emanen dira eta ortziraleko 19:30ean bilduko dira Eztegarara frontoian.

Ikastaroa 10 euro kostako da eta interesatuek apirilaren 7a izanen dute

izena emateko azken eguna, ondoko tokietan: Errekalde, Katakua eta Xuga ostatueta eta Labe Zar eta Sarobe okindegietan. Informazio gehiago: 662 506398-an (Jon) edo guretxokoadantza.blogspot.com-en.



ARGAZKIA: TELLETXEA

Erretiratu diren zortzi suhiltzaile boluntariori omenaldia

Nafarroako Larrialdi Agentziak eta Udalak omenaldia eskaini zien martxoaren 20an guttienez 20 urtez suhiltzaile boluntarioen lana bete eta erretiroa hartu duten zortzi laguni: Argimiro eta Jose Gartzia, Josu Goia, Manuel Iriarte, Julian Lekuona, Jose Antonio Sainz eta Antonio eta Miguel Zubietak hartu zituzten oroigarriak. Guttien egin duenak 15 urte eman ditu suhiltzaile, eta batzuk hiru hamarkada baino gehiago ere aritu dira. Ekitaldi ofizialaz gain, suhiltzaileek zenbait praktika ere egin zituzten eta ikastetxe baten ondoan erortzeko arriskua zuen zuhaitz handi bat ere erretiratu zuten. Gero, bazkalzera bildu ziren. Suhiltzaile boluntarioen parkea 1906an sortu zen eta Nafarroan dauden zazpietatik aitzinakoena da. Gaur egun, erretiroa hartu duten suhiltzaileez gain, 15 boluntario ari dira. Argazkian horietako batzuk.

FLASH

Realzaleak Anoetan

Igande honetan, apirilak 4, 12:00etan Realak Herculesen kontra jokatuko duen partida ikustera joateko irteera antolatu du Genaro peñak. Bazkideek izanen dute lehentasuna eta prezioaren barne Donostiara joan-etorria autobusez, han bazkaldu eta partidako sarrera sartuko dira. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek 40 euro. Autobusa 10:00-etan abiatuko da lamotenea pareko aparkalekutik, eta Donostiatik 17:00etan itzulerako autobusa. Izena emateko azken eguna asteazken hau da eta Xuga ostatueta egin behar da, 10 euroko aurrerapena utziz. Informazio gehiagorako: 680 984056.

Soinketa Eguna

Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarteak bertze urte batez Soinketa Eguna antolatu du. Apirilaren 8an, ortzegunarekin, egingen dute kiroldegian.

Bestetako prestaketak

San Esteban besten programa lantzeko bilera egingen da asteazken honetan, martxoak 31, 19:30ean Herriko Etxean.

Etxebizitza eta lokal berriak · www.layabera.com · Eraikin paregabea Beran

Argazkiak eta planoak webgunean ikusgai

info@layabera.com
Tel 620 451 425

LESAKA

KOMERTZIOA → LESAKAKO ZERBITZUEN ELKARTEAK ANTOLATUA

Udaberriko Azoka apirilaren 11n ospatuko da frontoian

Herriko 13 komertziok hartuko du parte aukera ezin hobek eskainiz

Aitor AROTZENA

Joan den urteko arrakasta ikusita, bigarren urtez Udaberriko Azoka antolatuko du Lesakako Zerbitzuen Elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Apirilaren 11n izanen da hitzordua, 10:00etatik 19:00etara udal pilotalekuan eta herriko 13 komertziok hartuko du parte: Intzuri optika, Oreka dietetika eta nutrizioa, Deñe mertzeria-lentzeria, Oninart kamixetak, Ordoki altzariak, Bixkiak arropa denda, Maite Igarzabal ilepaindegia, Gemma Igarzabal estetika, Panpina haur arropa-denda, Telletxea argazkigintza, Txinelka zapata-denda, Kaxerna elektrogailuak eta Ortzadar arropa-denda. Euro bat kobratuko da sarrean eta horrek Haizea, Atxaspi eta Kattun kontsumizio bat doan hartzeko eskubidea ematen du.

Iaz bezala, aurrean ere aukera ezin hobek izanen dira eta bi sariren zozketa egingen da erosketa guztien artean.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Urteko bertso festa handia berriz ere herrian

Baziren urte batzuk ez zela Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala herrian ospatzen. Martxoaren 20an bueltatu zen eta urteko bertso festa ederra izan zen. 1.200 lagunek lepo bete zuten udal pilotalekua eta Bertsozale Elkarteak Tantarumairu ikastolako Kontxi Errori eman zion Julio Sotori txapela janzteko ohorea, hainbertze bertsolari eman dituen Bortzrietako bertso eskolaren ernamuina izan baitzen ikastetxea. Herriko finalisten artean, Estitxu Arozena hirugarren izan zen eta Xabier Terreros zazpigarren.

FLASH

Zirkulazioaren gaineko zerga

2010eko zirkulazioaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea apirilaren 9an bukatuko da. Data horretatik aitzinera, eta Agentzi Exekutibora bidali arte %5eko errekaruarekin kobratuko da. Helbideratutako erreziboak martxoaren 29an kobratzekoak ziren.

Andra Mariko Gobernu Batzordea

Andra Mari zaharren Egoitza Erakunde Autonomoaren Gobernu Batzordea osatzeko bi herritar behar dira. Interesatuak bere eskara egiten ahal dute udalaren bulegoetan, apirilaren 30a arte.

Kontsumitzaile Elkarteak

Iratxe Nafarroako Kontsumitzaile Elkarteak atenditzen duen bulegoa hilabeteko lehen ortziraletan izanen da herrian. Apirilean, Aste Santu ondotik izanen da, apirilaren 9an; maiatzaren 7an eta ekainaren 4an. Aitzinetik ordua eskatu behar da 012 telefonoan.

PNVren salaketa

Martxoaren 20 eta 21 arteko gauean izandako «gertaera bandalikoak» salatu ditu PNVk. Zaborrontzi batzuei su eman Bittirian eta ondoko autoa ere kaltetu zuen suak, berze ekintzen artean.



ETXALAR

UDALA → AZPIEGITURAK

Depuradoratik ermitara doaien bidea berrituko da, zementua botaz

Udalak mendiko dirulaguntza erabiliko du horretarako

Irune eta Itsaso

Depuradoratik ermitara doaien bidea berrituko dute zementua botaz; 250 metro denetara. Bide honek ermita ondoan duen erro-matar galtzada errespetatuko dute, halere. Oraindik ez dago erabakita nork eginen dituen obrak, baina alkatuek erran duenez Andre Marietarako akabaztea espero dute.

Arazoak eskolako jangelarekin

Aspalditik datorren arazoa da Landagain Eskolako jangelarena. Gaur egun 30-34 haurrentzako lekua du, eta aurtengo ikasturtean 41 haurrek bazkaltzen dute bertan. Leku faltagatik 8-10ek psikomotritzitate gelan bazkaltzen

dute. Guraso Elkarteak martxoaren 16an batzar berezia egin zuen jangelaren arazo honetaz solasteko. 6 juntakideekin batera 17 guraso bildu ziren.

Guraso Elkarteak jangelan leku falta dela eta bazkaria bi txandatan emanez proba egitea proposatu zuen, baina guraso guztiak kontra

agertu ziren. Hori dela eta, oraingoz, orain bezala segituko da. Datoren bi ikasturteetarako 45-50 haur izanen direla aurreikusia dago jangelan eta hemendik hiru urtera, berriz, oraindik gehiago. Juntaren iritzi bertez modu edo irtenbideren bat bilatu beharko da arazoa konpontzeko.

Zinegotzi aldaketa

Orain arte zinegotzi izan den Nerea Mitxelorenak kargua utzi du eta hemendik aitzinera Ignazio Atondo izanen da zinegotzi berria. Aldaketa honen ondorioz Irati Lujua arduraturako da Euskara Mankomunitateaz eta herriko bestez eta Atondo mendiko aferez.



ARGAZKIA: IGNAZIO ATONDO

Patinaje ikastaroa

Urtero bezala, aurten ere haur andana biltzen da larunbat goizetan frontoian patinaje ikastaroa dela eta. Bi taldetan banatuak aritzen dira: 11:00etan hasen dira txikiak eta haundinak 12:00etan. Irakasleak Andrea Elizalde eta Jone Bizente dira eta ikastaro honekin hagitz gustura daudela erran digute.

FLASH

San Jose eguna

1870. urtean sortutako San Jose Zurginaren Kofradiak bertze urte batez bere eguna ospatu zuen joan den martxoaren 19an. Kofradiako difuntuen alde meza izan zen eta ondotik, Javier Indaburu eta Teodoro Iribarren kofradiako arduradunak Elutsa ostatuan egon ziren kofradiako kide bakoitzari tokatzen zaion urteko gastuen zatia kobratuz, eta aldi berean, haia maiketako eskainiz.

Larraburuko partxis eta mus txapelketa

Bertze urte batez, negu partean partxis eta mus txapelketak jokatuko dira Larraburuan. Aurtengoan hamar bikote izan dira musean aritu direnak eta zotzi bikote partixean. Musean irabazle suertatu direnak Jaime Sanzberro eta Jesus Ansalas izan dira eta partixean, berriz, Juana Mari Arburua eta Enkarna Iparragirre. Hauek magra irabazi zuten sari bezala. Martxoaren 20an, parte-hartzaileak akabilla eman zioten txapelketa honi afari eder baten inguruan.

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Javier Manterola
Tobako instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Bimiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktua
Etegarra, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

IGANTZI

AZPIEGITURAK → ESTATUKO DIRULAGUNTZAREKIN

Elizateko teilatua moldatu eta herriko ostatuko sarrera aldatuko ditu Udalak

66.378 euro hartuko ditu Espainiako Gobernutik

TIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuaren dirulaguntza deialdiaren bidez, 66.378 euro hartuko ditu Udalak, eta diru horren zati bat Herriko Etxe zaharreko edo Elizateko teilatua moldatzeko erabiliko da. Horrekin batera, La Villa ostatuko sarrera ere aldatu egingen da.

Obra norkeginen duen ez dago zehaztua. Proiektua egindakoa, lehiaketara aterako da eta orduan erabakiko du Udalak nori esleitu.

BERTZE GASTUAK

Subentzioaren bertze zati bat erabilera anitzeko fotokopiagailua erosteko erabili da, eskaneatzeko eta inprimatzeko ere balio duena. Eta gainerako dirulaguntza eskolako gastuetarako bideratuko da: gasolioa, argia, garbitasuna...

Bertso-afaria Udaberriko Bestetan

Udaberriko Besten barne, bertso-afaria egingen da apirilaren 30ean

Biltoki elkartean. Maila haundiko bi bertsolari ezagun izanen dira: Julio Soto, Nafarroako txapeldun berria, eta Jon Maia, Euskal Herrikoan hirugarren izan zena. Afariaren prezioa, izen-emateko epea eta gainerako xehetasunak hurrengo alean zehaztuko ditugu.



ARGAZKIA: IGANTZIKO ESKOLA

Ingelesa praktikatzen Irunberrin

Esperientzia berria izan dute berriki eskolako laugarren mailako ikasleek: *English week* programaren barne parte hartu dute, eta ingelesa praktikatzeko helburuarekin, Irunberrin izan dira bederatzi ikasle eta Nerea irakaslea. Martxoaren 15etik 18ra Lekunberri, Etxarri-Aranatz eta Uharteko ikasleekin batera egon ziren Irunberrin eta goizez ingeleseko klaseetan egon ondotik, arratsaldez gisa guztietako ekintzak egiten aritu ziren: igerilekua, Irunberriko arrolara bisita, orientazio jokoak... eta gehien gustatu zitzaiena: diskoteka. Leher eginak bueltatu ziren etxera, baina erran digutenez, hagitz gustura. Ulermena landu omen dute batez ere, eta hori orain eskolan ere nabaritzen omen da.



UDABERRIKO FERIA LESAKAN

Apirilak 11 igandea

LESAKAKO FRONTOIAN 10:00etatik 19:00etara



aukera ezin hobekak!

Zozketa!!!

EROSKETA GUZTIEN ARTEAN

ANTOLATZAILEAK:

INTZURI optika, OREKA dietetika eta nutrizioa, DEÑE martzzeria leizterria, ONNART kamioetak, ORDOKI altzarriak, BIXXIAK arropa denda, MAITE IGARZABAL lespaindegia, GEMMA IGARZABAL estetika, PANPINA haur arropa denda, TELLETXEA argazkigintza, TXONELKA zapata-denda, KAXEPIÑA elektrogailuak, ORTZADAR arropa denda.



LAGUNTZALEA
Lesakako udala

GIZARTEA → ZUZENDARITZA BERRIA EKAITZA ELKARTEAN

Sonia Iturria da Ekaitza Elkarteko lehendakari berria

Zuzendaritza Batzorde berriak ardurak banatu ditu

Nerea ALTZURI

Ekaitza Elkartek Zuzendaritza Batzordea berri du eta heldu diren bi urteetarako bozkatuenak izan ziren bederatzi kideek ardura banaketa egin dute. Martxoaren 11n bildu ziren eta orduan banatu zituzten lanak.

Sonia Iturria da elkarteko lehendakari berria; lehendakariordea Aintzane Iturria; idazkaria Jaione Irigoien; diruzaina Mikel Leiza; kultura eta kirol esparruetan Martxelo Jorajuria, Aintzane Iturria eta Ainhoa Altzuri ariko dira eta bodegero lanetan Elixabet Iturria. Gotzon Arenas eta Patxi Mutuberria ez zeuden bileran, eta ez dugu jakin euren ardura zein den.

Halere, batzordekideek aipatu bezala, ardurak ardura, taldeko

lana da beti bezala. Eta denen artean ohiko ekimenak aitzinera eramane dituzte. Gisa berean, bilera, ekitaldi eta bertzeetan partaide izaten segituko du elkarrekin. Gainerako bazkide eta herritarrek ere lagunduko dute zenbait kasutan.

Mendi Itzulia maiatzaren 23an

Ekaitza Elkartean ekimenetako bat bi urte behin egiten den Mendi Itzulia da. Eta aurten tokatu egiten da.

Bosgarren Mendi Itzulia maiatzaren 23an, igandea, izanen da. Ho-

rretarako hurrengo asteetan bilerak izanen dituzte elkarteko kideek. Goiz polita eta jendetsua izaten da, baina horrek aitzinetik prestakuntza handia eskatzen du.

Data hurbildu ahala xehetasun gehiago emanen ditugu.



ARGAZKIA: SAIOA ORDOKI/ ITZIAR MITXELENA

Sagardotegian giro ezin hobean

Tiki gelditu zen autobusa martxoaren 13an sagardotegira joan nahi zutenentzat. Ekaitza Elkartek eta Gazte Asanbladak antolatutako irteerari erantzun bikaina eman zioten herritarrek eta 50 bat lagun joan ziren sagardotegira. Toki eskasiagatik, bakarren batzuk gogoarekin gelditu behar izan zuten.

FLASH

Arrain freskoaren salmenta

Bortzak Bat Kooperatibak zerbitzu berria paratu du martxan. Joan den martxoaren 20tik, aitzinetik eskaera egiten duen herritarrek zerbitzua herritar guzientzat da- arrain freskoa herrian bertan izanen du. Asteazken eta larunbatetan kooperatiba irekia izaten da. Rosa Mari Iribarren arduradunak asteazkenetan eskariak hartuko ditu, eta Irungo Marea arraindegira abisuak pasatuko ditu. Larunbatetan, berriz, 08:30etik 09:30era arrain poltsa eske joan behar da, han ordainketa eginez. Oraingoz, hasiera bertzerik ez da eta ikusiko da aurrerantzean nolako harrera izaten duen. Bertalde, martxoaren 12an, Bortzak Bat Kooperatibak kontuak emateko bilera-afaria egin zuen. Gauregun, batez ere, nekazaritza eta abeltzaintza esparruei begira dagoen kooperatiba honek osasun oneko segitzen du. 96 bazkide ditu eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: pentsuak eta base-riko tresnak, bi kama- ra, jan-edatekoak, enbaseak eta latak egiteko makineria...

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
INTERNATIONAL ASSOCIATION OF SALAD STANDARDS
SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

SUNBILLA

GIZARTEA → GURASO ELKARTEKO JUNTA BERRITUA

Hiru kide berri sartu dira Guraso Elkarteko zuzendaritza batzordean

Sole Gartzia, Azucena Carro eta Idoia Zunda dira

Jaione OTXANDORENA

Guraso Elkartek Zuzendaritza Batzordea aldatzeko bilera egin zuen martxoaren 12an. Orain arteko kideek bi urte eman dituzte lanean jo eta ke herriko haurrentzat ekintzak prestatzen: Asteburu Kulturalean, Eguberrietan, herriko bestetan, ikasturtean zehar... Orain, ordea, erreleboa hartzea bertze batzuei tokatu zaie.

Guraso Elkartek bilera egindako deialdian 37 familietatik 15 bakarrik agertu ziren eta ez zen botaketa egiteko beharrik izan, guraso batzuk boluntario azaldu baitziren batzordean hu-

tsik gelditu ziren hiru lekuak betetzeko. Idoia Zugaramurdi, Aitziber Mariezkurrena eta Jaione Otxandorena dira batzordetik atera direnak, eta Sole Gartzia, Azucena Carro eta Idoia Zunda dira beraien lekua hartu dutenak. Juntako bertze bi gurasoek, Amaia Arretxea eta Koro Zelaie-tak, aurreko batzordearekin bi urte egin ondotik, batzorde berrian bertze urte bat eginen dute eta datorren urtean biguraso berri sartu behar dute azken hauen orde-z.

Lan egiteko gogoz agertu dira guztiak, eta beraz, animo!

Euskal Herriko Mus Txapelketa

Bere garaian aipatu bezala, Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa bat Ulibeltzak



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA


Primeran joan da Asteburu Kulturala

Ortziral goizeko haurren dantza saioarekin hasi ziren kultur ekitaldiak. Eta ondotik gazteen arteko apustua izan zen. Unai Bertizek lau altxaldigatik ez zuen lortu bertze lau mutilek baino lehen lanak akitzea. Baina giro ezin hobea egon zen frontoian. Arratsaldean, haurrentzat tailerrak eta gaztetxoentzat Leurtza abenturakoen eskutik ekitaldiak izan ziren. Ederki gozatu zuten. Gauean, berriz, mus txapelketan 18 bikotek eman zuten izena eta Jabier eta Teresita atera ziren txapeldun. Bigarrenak *Itxegi* eta Mañoli, hirugarren *Pattere* eta Nieves eta laugarren Andoni eta Jabier. Hurrengo egunean, ajoarriero txapelketa jokatu zen eta aurtengoan *Attope* taldeak lortu zuen puntuaketa handiena. Txapelketa akitu ondoren Ulibeltzak Elkartean bazkaria egin zen eta ondotik bizi-poteo arrakastatsua. Gauen kontzertuak eta gaupasa izan ziren. Igande goizeko artisau ferian, jende ugari ibili zen, eta hirugarren aldiz jokatu zen Gazta Txapelketa Josefina Jorajuriak irabazi zuen. Zorionak irabazle eta parte-hartzaile guztiei

Elkartean egin zen. Eta bi lehendabizikoak Iruñeko kanporaketara joan ziren martxoaren 6an. Azkenean baita hirugarren gelditu zirenak ere,

hau da, Raket eta Maxux. Gainera, hauek Nafarroa mailan 128 bikoteretan artean azpitxapeldun gelditu ziren. Iruñan jokatutakoarekin, martxoaren

20an Seguran (Gipuzkoa) egin zen Euskal Herriko Txapelketarako txartela lortu zuten, baina hemen ez zuten suerte handirik izan.



estatxa
centro náutico

5
BIDASOAKO AKADEMIA NAUTIKOA
Itsasgintzarako titulua lortzeko Eusko Jaurlaritzak homologatutako akademia

Itsasontziko patroia:

- ONP (Oinarrizko Nabigazioko Patroia) PNB
- LOP (Laketontziko Patroia) PER
- Yateko patroia

Donostia kalea • Sokoa Merkataritza gunea, 10 • HONDARRIBIA
T. 629 070936 • www.estatxa.com

DONEZTEBE

GIZARTEA → JAIOTZA TASA ETA INGURUMENA

2009an sortutako haurren izenarekin 21 zuhaitz landatu dira

Zuhaitz bakoitzari jaioteguna eta izena paratu zaizkie

TTIPI-TTAPA

2009an sortutako haurren jaioteguna eta izena daramaten plakekin 21 zuhaitz landatu ditu aurten Udalak. Urtero antolatzen duen ekimena da eta aurten goa azken asteotan egin da. Haurrek eta gurasoek ere parte hartu zuten landaketan, eta ondotik ohikoa bihurtu den hamaiketakoa egin zuten.

Loteria primitiba herrian

Martxoaren 13ko loteria primitibak sari haundia utzi zuen herrian: 17,3 milioi eurokoa, hain zuzen. Donezteben kiniela eta primi-

tiben administrazio bakkarra dago eta hortxe zigitatua izan zen. Asmatzaileak nahiago izan du bere burua sekretuan eduki, baina badirudi, martxoaren 15ean berean bere boletoa bankuren batean aurkeztu zuela saria jasotzeko. Zerbaki saritua 62.090 izan da.

Sariaz haratago, herrian mugimendu haundia somatu da horren eraginez, estatuko telebista kateak ere Donezteben izan baitziren jendeari sariari buruz galdezka.

42 lagun Xabierera

Martxoaren 13an Xabierera joateko Erreka Kirol Elkarteak antolatutako ateraldia arrakastatsua izan zen: 42 lagun animatu ziren. Horieta batzuk autobusez joan ziren Noaineraino, eta handik Xabiererako bidea oinez egin zuten; bertze batzuek,



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitz landaketan parte hartu zuten herritarrek.



ARGAZKIA: ERREKA ELKARTEA

Entrenatzaileen bazkaria

Aitzineko urtean bezala, «prestaketa» berezia egin zuten Erreka elkartearen entrenatzaileek martxoaren 19an: sagardotegira joan eta hantxe bazkaldu. Ez zuten denek joaterik izan, baina gehienek ez zuten hutsik egin.

berriz, nahiago izan zuten Monrealetik abiatu. Herritarren artean, batzuek oinez joan ziren,

eta patinetan bertzeak. Liedenan atsedean ttiki bat egin ondotik 11:00-etarako Xabierren zeu-

den. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta gustura gelditu ziren erromesak.

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA LINDDURRENBORDA

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Dolarea Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA LINDDURRENBORDA
 Telefonu batua • LEKARROZ Telefonu batua • LESAKA
 948 402021 • 629 404317 948 627212

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA

AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI

konponketa eta mantentzea

Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

ITUREN

AIZKORA → APUSTUA MAIATZAREN 9AN

Ander Erasunek aizkora eta korrikako apustua egiteko aurkaria badu jada

Zaldua
gipuzkoarrak
onartu dio
apustua

Arkaitz MINDEGIA

Martxoaren 13an Etxalarko hotelean aizkora eta korrikako apustu mistoa egiteko aurkariaren zain egon zen Ander

Erasun aurtiztarra. Aurtengo denboraldian apustu bat egiteko bigarren ahalegina izan du. Aurrekoan desafioa Aizpururi luzatu zion, baina Nuarbekoak ez zion erantzun, eta apusturik gabe gelditu zen.

Oraingoan, aldiz, hartu du erantzuna. Bat ez, lau interesatu agertu baitziren: Xabier Zaldua, Xa-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Ander Erasun aizkora eskuan duela, eta goiko aldean bere aurkari izanen dena: Zaldua.

bier Orbegozo Arria V.a, Jon Rekondo (Leitza) eta Julen Kañameres. Baina hitzordura ailegatzen lehenbizikoa Zaldua izan zen eta bera izanen da Anderren aurka lehiatuko dena. Kirolari bakoitzak 10 kanaerdiko moztu beharko ditu —egurrak erdibana eramane-

dituzte—, eta ondotik 10 kilometro egin lasterka. 3.000 euro paratuko ditu alde bakoitzak jokotako dute desafioa. Tokia guztiz zehaztua ez badago ere, Tolosan edo Azeitian izanen da.

Aizkora elkarren kontra lehen ere ibiliak

dira Erasun eta Zaldua. Euskal Herriko Txapelketako kanporaketan izan zen eta orduan aurtiztarra nagusitu zen. Baina Erasunen hurbilekoek erran digutenez, gipuzkoarra lasterka «hagitz ongi» aritzen da, eta bali-teke hori Zalduaren aldeko «abantaila» izatea.

URROZ

UDALA → KONTUAK

Aurreikusi baino diru sarrera eta gastu guttiagorekin joan zen 2009a

54.000 euro
guttiago sartu
da Udalean eta
20.000 guttiago
gastatu

Joseba URROTZ

Joan den martxoaren 23an onartu zituen Udalak iazko kontuak. Horien arabera, 2009rako 159.000 euro sartzearrekin aurreikusia zen baina 104.900 sartu ziren, hau

da, pentsatu baino 54.000 euro guttiago. Gastuetan ere espero zenaren azpitik egin da: 301.693 euro aurreikusitako eta 282.700 gastatu ziren, ia 20.000 euro guttiago, alegia.

Obra berriak

Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin egin behar diren bi lanak esleitu dira. Horien artean, garrantzitsuena, 18.000 euro in-



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Bazter-babesak paratzeko lanak Sasoi enpresari esleitu dizkio Udalak.

guru gostako dena, Sasoi enpresak egingen du eta bide bazterretan babesak paratzea izanen da.

Bertzalde, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin urtero egingen diren oihaneko lanak ere zehaztu dira: bertze gauza batzuen

artean, Anizpeko bidea garbituko da eta Muga-kosoro inguruan bidea konpondu eta eskoilera egingen da.

Leurtzako zaindariak

Bost pertsona aurkeztu ziren Leurtzako

Natur Eremuan zaintzaile bezala aritzeko Udalak egindako bi lanpostuen lehiaketara.

Lanpostu batek zazpi hilabeterako kontratua du, aurten Labaiengo biztanleari egokitu zaiona eta bertzeak hiru hilabete ingurukoa, Urrozkoa aurten.

UDALA → AZPIEGITURAK

Txitxilo eta Armizkueko bideetan egin beharreko lanak esleitu ditu Udalak

Luciano Iriartek egingen ditu konponketa lanak

Fermin ETXEKOLONEA

Narbarteko Luciano Iriarte enpresak egingen ditu Txitxilo eta Armizkueko bideetan egin beharreko moldatze lanak. Udalak egingdako deialdira lau enpresek aurkeztu zuten proposamena eta guztien artean, berea izan da eskaintzarik onena eta hortaz, berari agindu dizkio lanak.

51.359,56 eurotan esleitu dira, eta hilabete bateko epea ezarri du akitzeko. Lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabea zegoen enpresa noiz hasiko den lanean, baina irailaren

1erako eginak egon beharko dute.

Estetika zentroa herritar batek

Arrate Leizeaga herritarra estetika zentroa irekitzekotan da Donezteben. Krisi garaia izanagatik, animatu egin da eta ea zortea duen. Noiz irekiko duen esanez, aurrerago emanen ditugu xehetasunak.

ETBren aldeko sinadura bilketa

Herritar batzuek egin dute dagoeneko Nafarroan ETB ikusten segitzeko eskatuz sinadura, baina maiatzera bitarteko epea dagoenez, egin ez dutenek ere badute oraindik aukera Herriko Etxean. ETB ikusi nahi dugula eskatzeko bide bat da.



ARGAZKIA: NASA PRODUCCIONES

Orain aktore ere bai

Historialaria eta irakaslea bakarrik ez, aktore lanetan ere moldatzen da Juainas Paul Arzak. XVII. mendeko agoteen bizimoduaz ari den *Baztan* filmeko aktore nagusietako bat da Juainas, eta Pedro Joxe agotearen paperean sartu da. Eta esan digunez, kontent ibili da, giro ona izan dutelako grabaketetan. Gidoiak hala eskatuta, itxura aldatua ikusi dugu egun hauetan, baina poztekoa da herritar bat horrelako lan batean ikustea. Argazkia, berriz, Aroztegiko grabazio batean hartutakoa da. Filmea noiz ikusi zain egonen gara, lehen zatia joan den astean akitu baitzuten grabatzeaz, baina bigarren zatia noiz grabatuko duten oraindik ez da jakina. Bitartean, autografoa eskatzen hasi beharko dugu...

- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

EZKURRA

AZPIEGITURA BERRIAK → HERRIKO ERLOJUA

Martxoaren 17az geroztik martxan da Elizako erloju berria

Aurreikusi baino gehiago gusta dira lanak

DATUA

8.273

EURO

behar izan dira erloju berria egiteko.

Fernando ETXEBERRIA

Azkenean, martxoaren 17an hasi zen lanean Elizako erloju berria. Eta horren harira, Fernando Etxeberriak eta Udalak Nafarroako Kutxaren *zuk aukeratu, zuk erabaki* proiektuan euren ekarpena egin dutenei eskerrak eman nahi izan dizkiete.

8.273,19 euroko gastua eragin du erloju berriak. Hasiera batean, 7.950 eurokoa izanen zela aurreikusia ze-

goen, baina otsaileko haizete indartsu hark kristala hautsi zuen eta haren orde, esfera garestiago bat paratu behar izan da.

Ezin hobeki funtzionatzen du eta ohiko orduetan kanpaiak jotzeko programatua dago. Beraz, goizean 08:00etan, eguerdian 12:00etan eta ilunaba-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Lehengoa nola zegoen ikusita, alde ederreko itxurarekin gelditu da ordulari berria.

rrean 20:00etan egunero joko du, eta asteburuetako mezak iragaritzen ere segituko du.

Ezcurrako boluntarioa

Silveiraren salaketak zirela eta, TTIPI-TTAPAREN aurreko alean, al-

dizkari honetako arduradunak defendatzeko artikulatu bat argitaratu nuen, eta aldi berean, libre eta jakitun, kolaboratzen segitu nahi nuela adierazi nuen, ez nautela erabiltzen esanez. Badakit gainerako boluntarioek ere euren babesa eman

dutela. Zerbaitegatik da eskualde honetan euskarazko aldizkaririk irakurriena. 30 urteko ibilbidea nahikoa da gure hizkuntza eta kulturaren aldeko bere presuntasuna eta maitasuna zenbatekoa den ikusteko. Segi aurrera!

ZUBIONDO
Jatetxea
Agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel: 948 625206

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2º - ELIZONDO
T. 948 581 448 M. 630 354 816

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK
Melamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
Pintura eta bernizak
Bainurako mobleak eta osagaiak
KIT mobleak, esku-erremintak, etab.
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa
Kiroi Fisioterapia
Osteopatia
Masaia
Trafiko istripuetan aholkularitza
Istripu eta osasun aseguruak
METODO BERRIA
Umeentzako arnas fisioterapia
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

BEINTZA-LABAIEN

UDALA → ESPAINIAKO GOBERNUAREN LAGUNTZAREKIN

Eskolako goiko solairuan obra batzuk egingen ditu Udalak

Beintzako ostatuan kontraleihoak ere jarriko dira

TTIPI-TTAPA

Irakasleen bizitoki izan den eskolako goiko solairua konpontzeko erabiliko du Udalak Espainiako Gobernuaren bidez hartuko duen subentzioa.

Biztanle kopuruaren arabera izaten da laguntza hori, eta Beintza-Labaieni 27.000 euro egokitu zaizkio -jo-

an den urtean, 45.663 euro hartu zituen-. Aurtentzen hartuko denarekin zolaberritu eta leiho eta ate berriak paratuko dira eskolako bizitokian. Subentzio horren beste zati batekin, Beintzako ostatuan kontraleihoak paratzekoak dira.

ATERPEA HAUNDITZEN

Aterpea haunditzen ere ari da Sasoi enpresa. 101.000 euroko aurrekontuarekin jende gehiago hartzeko gela eta komun gehiago egingen dira, baita erabilera antzeko beste gela bat ere.



ARGAZKIA: BEINTZA-LABAIENGO ESKOLA

Ipuinen munduan hiru herrietako neska-mutikoak

Nafarroako Gobernuako Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzuak antolatzen duen *Kontu Kontari* izeneko programaren bidez, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaiengo ikasleak Beintza-Labaiengo eskolan elkartu ziren martxoaren 12an, Lur Usabiaga ipuin kontalaria entzuterako. Ondotik, ikasleek eskolan bazkaldu zuten, eurek ekarritako janariarekin. Bazkaldutakoan margotzen, jolasean eta kantuan aritu ziren. Oso ongi pasatu zuten, bai txikiak, baita handiek ere.

EUSKARA

NAFARROA → KONTSEILUAK DEITUTA

Nafarroako hizkuntz politika salatzen manifestazioa maiatzaren 15ean

Euskaraz bizitzeko eskubidea lelopean

TTIPI-TTAPA

Nafarroan euskaraz bizi

duen egoerarekin «kezkatuta» eta Nafarroako Gobernuak euskararekiko duen «mespretxua» salatzen, manifestazioa antolatu du Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak maiatzaren 15erako, Iruñean, *Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea* lelopean.



ARGAZKIA: KONTSEILUA

Maiatzaren 15eko manifestazioaren aurkezpena.

roan euskaraz bizitzeko eskubidea lelopean.

«Nafarroan euskaraz bizi nahi duen orok aukera izan dezala, besterik ez dugu eskatzen». Horixe adierazi zuten ehun euskaltzalek baino gehiagok manifestazioa

aurkezteko egindako ekitaldian. Erakundeei dagokienez, Kontseiluak antolatutako manifestazioari 45 bat taldek azaldu diote dagoeneko atxikimendua, bertzeak bertze Xorroxin irratiak, TTIPI-TTAPAK edo IKAK.

Azken 20 urteetan, Nafarroan, herritarren ahaleginei esker euskal hiztunek goiti egin dutela nabarmendu zuten aurkezpenean, baina Nafarroako Gobernuaren euskararen aurkako joera kritikatu egin zue

GIZARTEA

SAHARAKO HAURRAK GUREAN → UDAKO KANPAINA

Udan Saharako haurrak hartzeko aukera Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Leitzan

Baztan-Bidasoaldean apirilaren 25ean akituko da epea eta Leitzan karrape irratira deitu behar da

TTIPI-TTAPA

Uda honetan ere Saharako haurrak etxean hartzeko aukera izanen da Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Leitzan.

Baztan-Bidasoaldean, Saharaztan erakundeak da horren ardura duna eta dagoeneko *Oporrak bakean* izeneko kanpaina aurkeztu du, eta horrekin, Saharako haurrak etxean hartzeko deialdia egin du. Eta hala egin nahi dutenek apirilaren 25era bitarteko epea izanen



ARGAZKIA: SAHARAZTAN

Joan den urtean Baztan, Bortziriak eta Malerreka inguruan uda pasatu zuten Saharako neska-mutikoak, etxean hartu zituzten familiekin.

dute izena emateko.

Baztanen interesatuak daudenek 948 452372 telefonora deitu beharko dute izena; **Malerrekakoek** 948 451787 telefonora deitu beharko dute eta **Bortziriakoek**,

berriz, 627 019826 telefonora.

Jakina denez, Euskal Herri osoko herrietara hainbat eta hainbat haur saharar etortzen dira hemengo familiekin uda pasatzera. Baztan, Bortziriak eta

Malerrekari dagokienean, 15 urte inguru pasatu dira Saharaztan taldeak Saharatik haurrak ekartzeko ekimena martxan paratu zuela. Ekainean etorri eta abuztuan hartu ohi dute etxerako bidea.

LEITZAN ERE BAI

Leitzan ere urteak dira familiak Saharako neska-mutikoak udan hartzen hasi zirela. Aurtengo ere zabaldua da deialdia eta bat edo beretz interesatua agertu da. Halere, oraindik badago aukera eta bakarren batek haurra etxean hartu nahi izanez gero, Karrape irratira jo beharko du (948 610914).

Hasiere batean, familiak bi hilabetez edukiko luke etxean haurra, baina bi familia elkartuz gero, hilabete baina pasako luke neska edo mutikoak etxe bakoitzean.

Haurra ekartzeak ez dio gasturik sortzen familiei eta gainera, Leitzako igerilekurako sarreara doan izanen luke te haur sahararrek.

BERA Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinoerre, ormiorma, kakaxu...) eta erratoi xagutzar gorbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipian tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zainan, 42 A • BERA

BEINTZAKO OSTATUA

☎ 948 45 00 14

web: www.beintzakostatu.com

www.albergoak.com

14701 BEINTZALARAN

ORBELA

J. RAMOS

zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut

Sakelekoak: 637 836 023 - LESAKA

H. LOPEZ

FONTANERÍA • ITURGINTZA

Santiago 93, Elizondo • Tel. 948 452 126

www.honestolopez.com

RENOVE PLANA

KOMUNAK ERREFORMATZEKO LAGUNTZAK

AZPIEGITURAK → OBRA BERRIAK

Aterpea eginen da apezaren etxea izan denean

Lo egiteko tokia, ostatua eta jatetxea izanen ditu

TTIPI-TTAPA

Asko pentsatu, buelta asko eman eta gero, bilera askoren ondorioz, eta jendearen iritzia kontuan hartuz, honetarako bilera irekia egin zen otsailaren 6an, eta azkenean, Kontzejuak apezaren etxean aterpe bat egitea erabaki du. 48 plaza izanen ditu eta ostatu eta jatetxe zerbitzua ere eskainiko lituzke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Apezaren etxea aterpea izanen da etorkizunean.

OBRAK HASIAK

Etxearen moldaketak martxoan hasi ziren eta obrak sortuko dituen gastuei aurre egiteko dirua behar de-

nez, Kontzejuak proiektu hau Nafarroako Kutzaren Zuk aukeratu, zuk erabaki egitasmoan sartu du. Proiek-

tuaren zenbakia 20.602 da.

Proiektuari botoa emateko aukera abenduaren 31 arte izanen

da eta Nafarroako Kutzan kontu zenbakia dutenei honen alde egiteko eskatu zaie herri-tarrei.

BERTIZ

278.000 euro Eurovelo proiekturako

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 278.832,68 euroko laguntza eman dio Bertizko Partzuergo Turistikoari, Eurovelo proiektuaren baitan, Baiona eta Iruña lotuko dituen zatiaren barne, Doneztebe eta Enderlatsa arteko bidea txirrundulari eta oinezkoendako egokitzeko. Martxoaren 22ko akordioarekin onartu zuen subentzioa Gobernuak. Eurovelo direlakoak Europa osoa zeharkatuko duten 12 bide luze dira, hiri nagusietatik eta inguru turistikoetatik igaroko direnak. Europa osoko 52 elkarte eta 400.000 txirrundulazale ordezkatzen dituen Europako Txirrundulazaleen Federazioak bultzatutako proiektua da.

ELGORRIAGA
BALNEARIO • BAINUETXE

Errotaldeia z/g
Elgorriaga (Nafarroa)
Tel. 948 45 60 45
www.balnearioelgorriaga.com

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?
Denbora aunitz daramazu etorri gabe?
HAU DA ZURE AUKERA
Igerileku termalean erlaxazio zirkuitua **bakarrik 10€ pertsonako**
%50 BAINO GEHIAGOKO DESKONTUA
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan). Baldintzak kontsultatu

LEITZA

UDALA → AZPIEGITURAK

Dirulaguntza lortuz gero, eskolan igogailua jarri nahi du Udalak aurten

Muga arkitektonikoak kendu nahi ditu Erletan

TTIPI-TTAPA

Erleta eskolan igogailua jartzeko egitasmoa lantzen ari da Udala azken bi urteotan, eta horretarako Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin hainbat bilera egin ditu. Aurrekontuetan 150.000 euroko partida onartu zuen igogailua jartzeko, baina Xabier Zabalok TTIPI-TTAPARI adierazi dionez, «ezinbestean, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza ere behar da». Udalak dirulaguntza eskaera egin du dagoeneko, eta subentzioa %65-80koa izanzen litzatekeela pentsatzen du. Beraz, «dirulaguntza lortzen bada, igogailua jartzeko eta eskolan muga arkitektonikoak ezabatzeko lanak aurten eginen dira», azaldu digu Zabalok.

Birziklapena indartzeko asmoa

Birziklapena sustatzeko helburuarekin, dirulaguntza eskaera bideratu du Udalak. Pilak eta arropa biltzeko zerbitzua abiarazi nahi dela jakinarazi digu alkateak, eta horrekin batera, erosketetarako poltsa berrereabilgarrien, eta pestetako basoen edota txarroen erabilera sus-

tatu nahi du Udalak.

Monolitoa biribilgunean

Leitzako foruarekin eta herri kirolarekin lotutako monolitoa jartzekoa da aste honetan Lopeneko biribilgune berriaren erdian. Udalak eskatuta, Pello Iraizoz eskulturagileak egin du obra.

Leitzalarreko bidean erortza

Ilbeltzeko eurite eta elurteek Leitzalarreko bidean eragindako erortza ahalik eta azkarren konpontzeko memoria teknikoa eta aurrekontua egin ditu Udalak, eta horren arabera, moldaketa 76.500 euro kostako litzateke. Udalak dagoeneko eskatu du dirulaguntza Nafarroako Gobernuan eta orain erantzunaren zain dago.

Mendiko lanak

Bertako 200 haritzlandare aldatu ditu Udalak Leitzalarreko hainbat parajetan. Horrekin, «bertako zuhaitzei laguntzeko konpromisoari eusten diogu, urtero landaketa batzuk eginez», esan digu alkateak. Gaztainak ere sartu dira, eta hauetako asko fruituak emateko txertatu direla gaineratu digu.

Bestalde, zaharkituta zeuden mendietako itxiturak, arantzadun alanbre zaharrak, erretiratu egin dira, 10.500 metro guztira.



ARGAZKIA: HITZA

Musun Bordaren aldeko jaialdian herriaren erantzun ona

Musun Borda berreraikitze jaialdiaren balantze «oso positiboa» egin du Jon Arangoa zinegotziak. «Herriak oso ondo erantzun zuen. Plaza jendez bete zen eta laguntza eman zuen». Mikaela Zabaletak, Migel Martin Sagastibeltzaren koinatak, eskerrak eman zituen eta ezbeharrari bere alde ona bilatuz, «guk eskatu gabe jende asko laguntzen ari zaigu eta zorteko sentitzen gara». Bildutako dirua, baina, ez da nahikoa izango baserriaren berreraikitzeak eskatzen duenari erantzuteko. Horregatik, aurrera begira, beste ekimen batzuk aurreikusi dituzte, musikarekin lotuta, adibidez. Dena den, aipatzekoa da kirolarien prestutasuna. Arkixkil auzoko kirolariak hasi baitziren jaialdia bultzatzen. Arangoa zinegotziak azaldu duenez, Udalak badu asmoa Musun Bordaren berreraikitze lanean beste lan batzuk egiteko. «Adibidez bidea egokitu behar da eta beste kudeaketa batzuk egiten ere lagunduko dugu. Baserriak mantentzearen alde egiten dugu eta laguntzen saiatuko gara».



ARGAZKIA: HITZA

Emakumeen Mundu Martxa

Tolosa atzean utzita Leitzara iritsi zen Emakumeen Mundu Martxa. Hori dela eta, ekitaldi ugari izan ziren herrian; arratsaldean txokolatada izan zuten eta murala ere margotu zuten plazan. Jeiki Abesbatzak, herriko dantzariak eta bertsolariak egin zioten iluntzean ongi-etorria Martxari. Ondoren, afaria egin zuten Atekabeltza gaztetxean.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

BERTSOLARITZA → 1962KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Migel Zabaleta herritarra izan zen Euskal Herriko Txapelketan parte hartu zuen lehen nafarretako bat

Arozamena lesakarrarekin, 1962an aritu zen

Juana Mari SAIZAR

Nafarroko Bertsolari Txapelketaren inguruan, hitz eta pitz aritu dira Leitzako Karrape irrastian. Julio Sotori buruz esanda, Euskal Herriko Txapelketan, airoso aterazela Anaitasunan jokaturako kanporaketatik, eta Anoetakotik berdina egin izan balu eta BECera ailegatu izatera, lehen nafarra izango litzatekeela Euskal Herriko Txapelketaren finalean. Eta hara non sorpresa handia hartu dugun, ez baitzen hala izango.

1962an, Migel Zabaleta aresoarra, Migel Arozamena lesakarrarekin batera, Donostiako Astoria zineman aritu zen, eta beraz, bi nafar badi- ra lehendik Euskal Herri-

ko Txapelketako finalean arituak. Bazterrak mugituz atera da berri hau.

Areson ere jokatu omen zen Txapelketa Nagusiko kanporaketa bat, eta Martin Azpiroz eta Zabaleta herritarrek parte hartu zuten. Sastineko etxea erabili omen zuten kartzela modura, eta jendetza bildu omen zen. Beste kanporaketak Erratzun, Etxarri Aranatzun eta Goizuetan egin ziren.

NAFARROAKO AZPITXAPELDUN

Zabaleta Nafarroako azpitxapeldun izan zen 18 urterekin eta bertsolari gazteenaren kopa, zilarrezko bikiak eta 200 pezetako saria jaso zituen. Baina beste ohore handia Euskal Herrikoan Lopetegi, Azpillaga, Mattin, Xalbador, Uzta- pide, Baserri, Mitxelena, eta Lazkao Txikiren artean lanean aritzea izan zen. Herrialde bakoitze-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Dantzari gaztetxoak Tolosan

Tolosako Udaberri Dantza Taldeak Dantzari Txiki eguna antolatu zuen martxoaren 27an, Euskal Herri osoko 350 dantzari gaztetxo tartean zirela. Eta han parte hartu zuten herriko txikiek ere –argazkian– eta Tolosako kaleak alaitzen ibili ziren.

tik bina bertsolarik eta gipuzkoarrak asko zirela-ko lauk parte hartu zuten urte hartan.

Zabaletak oraindik gogoan du orduko lehen bertsoa, berari tokatu baitziztaion kantatzea: *kezka pixka bat ematen dit neri/hemen kantari*

hasteak/poza galanta ematen bai du/ zuek hemen ikustiak/era berdin- en agurtzen ditut/ nik zaharrak eta gaztiak/ egun eder bat pasa zazuten/ etorritako guztiak. Doinuari zortziko handia deitzen omen zioten garai hartan.

Esan digunez, gaztea zela, bertso zaharrak irakurriz eta kantatuz sortu zitzaion afizioa, eta ardiak zaintzen zituen bitartean, kantatzea oso gogoko omen zuen. Garai hartan, bertsoetarako zale- tasuna oso hedatua zegoela ere kontatu digu.

behetik

Añorga-Ixiki, 14 behea
T. 943 368 781
671 073 888
www.behetik.com

Eskallerrak igotzea... ez da oztopo!



plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...

GOIZUETA

UDALA → MENDIA

Hiru pinu lote saltzea lortu du Udalak ia bi urteren buruan

Zontzorrotz Ospela, Kinttalko eta Isilesko erreka ingurukoak dira

Esteban AROTZENA

2008az geroztik ez zen gure mendi publikoetatik intsignis pinu lote bat bakarrik ere saldu. Sektorearen krisi ikaragarriari Landetan hai zete batek eragindako txikizioa gehitu zitzaion, eta bi faktore hauen erruz, Hego Euskal Herriko egurraren ustiapenak hondoa jo zuen.

Orain, Frantziako pagotxa bukatzeaz dagoela dirudienean, merkaturatu zer edo zer mugitzen hasi da, udaletxean esan zigitenez. 2008ko abuztuan sustarata ateratako hiru mendi bere horretan zeuden geroztik, erostunik ez zegoelako. Orain dela aste batzuk

Etorki Kooperatiba Elkartek eskaintza luzatu duen arte, hain zuzen. Udalak nahi adina-koa ez omen da Etorkitik jaso duen eskaintza ekonomikoa, baina Nafarroako Gobernuko teknikariek horrela aholkatuta, hiru loteak arabarrei saltzeko erabakia hartu zuen aho-batez korporazioak otsailaren 23ko osoko bilkuran.

Loteak banan-bana aipatuz, esan, Zontzorrotz Ospela parajearen 6.696 metro kubiko neurtuko duten 3.464 pinu botako direla. 145.364 eurotan baloratuak; Kinttalkoko 2.889 zuhaitzek 4.544 metro kubiko neurtuko dute (74.000 euro); eta azkenik, Isilesko erreka parajeak 2.885 pinu eta 3.196 metro kubiko ditu (59.126 euro).

LANDAKETAK

Aurtengo neguko landaketa kanpaina ere



ARGAZKIA: LEIRE ETXEBERRIA

Zuhaitzaren Eguna

Martxoaren 17an Zuhaitzaren eguna ospatu zuten eskolako neska-mutikoeak eta denak elkarrekin mendira joan ziren. Ikasle bakoitzak bere zuhaitza aldatu zuen, batzuk urkiak eta besteek haritzak.

oparoa izan da ohi bezala. Zontzorrotzen, Zumarrenean, Urraideko lepoan eta Biribiltan burutu dira landaketa nagusiak. Intsignis pinu gaztea ihartu den mendietan, Iruñak hartu du bere gain aurrekontuaren %100. Besteetan, berriz, dagokion subentzioa, %80a inguru, eman dio Udalari. Landare motei buruz, esan, %60a koniferoa landatu dela, eta gainerakoa, ostozabala.

Etxeberria Umore Onako presidente

Joxe Jabier Etxeberria izanen da Umore Ona elkarteko presiden-

te hurrengo bi urteetan, martxoaren 13an egingandako urteko batzarrean bazkideek erabakitakoaren arabera. Komisioa osatuko duten ondorengo bost kide hauek ere hautatu zituzten batzarrean: Ibai Zubiri, Pio Zugarramurdi, Igor Apezetxea, Luis Elizegi eta Mikel Urdanpilleta. Aipatu, beste sei bazkide gehiago dituela Umore Onak aurtendik aurrera, seiak herritarrak eta gazteak gainera.

Bake epailearen ordezkia

Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenak M^a Asuncion Lujanbio izendatu du herriko ordezkio bake epaile posturako. Gogorarazi, Juanita San Migelek betetzen duela titularraren lekua aurreko epailea, Jesus Etxegia, hil zenetik.



Baialtzinikin...

Nafarroako Larrialdietako Agentziak 35.000 euro eman dizkiola Udalari suhiltzaileen iazko gastuengatik?

elVelocimetro.com

Gidatzeko baimena internet bidez lortzeko lehenengo autoeskola. Zure neurrira eta zauden lekuan zaudela.

www.elvelocimetro.com

testak hiztegia
bideoak azterketa
liburua praktikoa

50€ + klase praktikoa

GIZARTEA → ELKARTEAK 100 URTETIK GOITI

Iturri-Ederra Elkartek Mendeurrenaren Iturria inauguratu du

Juan Migel Ormart langilea omendu du elkartek

TTIPI-TTAPA

Duela bi hamarkada baino gehiago, 1987an bete zuen mendea Elizondoko Iturri-Ederra uren elkartek, baina martxoaren 21ean inauguratu zuten Mendeurrenaren Iturria, Santiago eta Jaime Urrutia karriken artean sortu den plaza berrian, Arizkunearen aitzinaldean.

ITURRI BERRIA

Iturri berriaren diseinua elkarteko batzordekide den Jesus Mari Lamereinhasena da eta Ha-

rrri Lan enpresak egin du.

Bertzalde, inaugurazio ekitaldian, omenaldia eskaini zitzaion elkarteko langile izan den Juan Miguel Ormarti. Maite Arregi presidentek oroigarria eman zion eta Juan Miguel izan zen iturria lehen aldiz irekitzeko ardura izan zuena. Garai ezberdinetan Iturri-Ederra elkarteko presidente izan direnak ere bildu ziren, baita gaur egungo zuzendaritza batzordea ere. Bere garaian, Pedro Mari Esartek elkartearen historiari buruzko liburua argitaratu zuen (presidente ere izan da idazlea) eta hori ere opari izan zuten bertaratu-ek.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Ezkerrean, elkarteko gaur egungo zuzendaritza batzordeko kideak eta eskuinalean, Maite Arregi presidentea eta Juan Miguel Ormart omendua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herriko muslari onenatarikoak Anizkoak

Asier eta Maitane Maritorena Anizko bikotea hirugarren izan da Euskal Herriko Mus Txapelketan. Eskualdeko eta herrialdeko txapelketak gaudituta lortu zuten aniztarrek martxoaren 20an Seguran (Gipuzkoa) jokatu zen finalerako txartela eta 128 bikoteren artean hirugarren sailkatzea zerbait baino gehiago denez, zorionak biei. Argazkian txapeldunekin ageri dira.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera SAN JOSE BEILATOKIA	948 63 74 04
Doneztebe SAN PEDRO BEILATOKIA	948 63 74 04
Elizondo FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	948 58 19 59
Leitza LEITZAKO BEILATOKIA	948 63 74 04
Lesaka LESAKAKO TANATORIOA	948 63 74 04

BAZTAN

HEZKUNTZA → AZPIEGITURAK

Iruritako eskola berrian jantokia egiteko eskatu dute gurasoek

Gobernuak ez du kontuan hartu jantokia egiteko eskaera

TIPI-TTAPA

Bere garaian aipatu bezala, Nafarroako Gobernuak 900.000 euroko inbertsioa eginen du Iruritan eskola berria eraikitzeko, eta horrekin batera, gurasoen zenbait eskaerari ere baiezkota eman die: sei gela izan beharrean zazpi izanen ditu, eta informatika gela 15 metro haundituko da. Ez dira, ordea, gurasoen eskaera guztiak aintzat hartu. Erabilera aintzeko bigarren gela ere nahi dute gurasoek erai-kin berrian, bertzeak bertze, jangela gisa erabiltzeko, baina Gobernuak ezekoa eman die.

Orain arte herriak utzitako gela batean bazkaldu izan dute neska-mutikoen, oraingo eskolatik hurbil. Baina eskola berria egindakoan, egungo jantokia «urrun» geldituko litzatekeela salatu du Idoia Eskudero, Iruritako Guraso Elkartearen izenean. Gurasoen irudiko, «ez litzateke posible izanen, denbo-

ragatik eta arriskuagatik, egunero, eguerdian haurrak eraikin berrietik oraingo jantokira joatea».

Gobernuak adierazi duenez, jantokirako erabili nahi den gela egitea ez du bere gain hartuko, ez delako eskualdeko jantokia eta ez dituelako inguruko herrietatik autobusez etortzen diren haurrak hartzen. Irtenbide bakarra Udalak finantzatzea dela erran omen dute Iruñetik.

UDALAK DIRURIK EZ

Konponbide eske, martxoaren 10ean alkaterekin eta zinegotzibatekin bildu ziren Iruritako gurasoak. Baina Guraso Elkarteak azaldu duenez, Udalak «gela finantzatzeko eta arazoari irtenbidea emateko sosis ez duela» erantzun die. Halere, Nafarroako Gobernuarekin kontatuan omen daude.

Gurasoek balio aintzeko gela proiektuaren barrenean sartzeko eskatu arren, Hezkuntza Sailak hori kontuan hartu gabe ateratu du proiektua lehiaketara. Etorrizuz nean gela arrunt bat eraikitzeak aukera aztertzen du, baina haundituta nola geldituko litzatekeen



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Eskola berrian jangela nahi dutela eskatzeko plazan bazkaldu zuten Iruritako ikasle eta gurasoek martxoaren 22an.



ARGAZKI: WWW.NAVARRA.ES

Arizkungo zeharbide berrira bisitan

Akitu dira Arizkungo zeharbideko lanak. Bidegurutzeko trafikoa hobeki bideratzeko helburuarekin biribilgune berria eraiki da eta horrekin batera, ur-sarea ere berritu da, ur-zikinen eta euri-uren saneamendu sareak, hain zuzen. Lan horiek 375.371 euro gosta dira eta 305.842 euro Nafarroako Gobernuak paratu ditu eta gainerakoa Udalak. Gobernuak paratu duen dirutik 227.252 euro Herrilan Departamentuak eta 78.590 euro Toki Administrazio Departamentuak ordaindu dituzte. Horren harira, zeharbideko lanetara bisita egin zuten martxoaren 18an Laura Alba Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilariak eta Virginia Aleman alkateak, Nafarroako Gobernuko eta udaleko bertze zenbait ordezkariarekin batera. Bertzalde, egun horretan adierazi zuen Alba kontseilariak momentuz Otsondon tunela egiteko asmorik ez dagoela.

ikusteko baino ez omen da izanen.

PROTESTA


Jantoki zerbitzua eskatzeko protesta gisa,

martxoaren 22an haurrek eta gurasoek herriko plazan bazkaldu zuten, *Iruritako eskola berrian ere, jangela behar dugu* lelopean.

Eskola berria frontoiaren ondoan eraikiko da, 1.582 metro koadroko lur eremuan eta 775.862,07 euro gosta da egitea.



igogailuen instalazioa
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardurarik, zure igogailu instalatzen dizugu

A R I Z K U N B A Z T A N



ESKATU INFORMAZIOA



Premociones
Lindutx Baztan, S.L.

Plaza Baztan Berni, nº 6 bajo
31700 Elizondo
Tel. 948 580 344
info@lindutx.com
www.lindutx.com



Hargibel Eraikuntzak, S.L.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → AZOKAK ELIZONDON

Udaberriko Feria apirilaren 9an egingen da

10:00etatik
14:00etara
ohiko ekitaldiak
izanen dira

TTIPI-TTAPA

Bi azoka izanen dira Elizondon apirileko lehenbiziko asteotan. Larunbat honetan, hilak 3, bertako artisau eta nekazaritza produktuekin azoka egingen da Merkatuko Plazan, 10:00etatik 14:00etara. Eta apirilaren 9an, toki berean, Udaberriko Feria.

10:00etan azienda feriarri hasiera emanen zaio Merkatuko Plazan eta aldi berean ahari lehiaketa egingen da. 11:00etan bildots erretze erakustaldia egingen da. 10:00etatik 13:30era bertako produktuen feria egingen da Foruen Plazan; 11:00etan txistulariak bazterrak alaitzen hasiko dira; 12:00etan dantzariena eta 12:30ean txalapartarien txanda izanen da. Ordu berean, Baztan-Zopak dastatzeko aukera ere izanen da. 13:30ean sari banaketa egingen da Merkatuko Plazan. Eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara bertako produktuen feria. Dantzaldia ere izanen da 20:00 arte.

Errugbilarien besta apirilaren 17an

Baztan Errugbi Taldearen urteroko besta apirilaren 17an egingen da, ohi bezala, Larrain-tzarko frontoian.

21:30ean aratze afaria izanen da eta ondotik kantu zaharrak abesten ariko dira. Bertze hainbat sorpresa izanen direla ere iragarri dute antolatzaileek. Afarira joan nahi dutenentzat, txartelak erosteko azken eguna apirilaren 13a izanen da. Elizondoko Futbolin, Goizalde eta Intza ostatueta daude salgai. Ultzaman, berriz, Eltzaburuko eta Arraizko ostatueta eta Orgi jatetxean.

00:30etik aitzinera, berriz, Trikidantzaldearekin dantzaldia izanen da eta gero, AK DJ-a.

Prezioei dagokienean, afaria eta bonolaguntza 25 euro gostako da eta bonolaguntza bakarrik 7 euro.

ORTZIRALERO LEKAROZEN

Errugbian ari nahi dutenei gonbita ere luzatu die Baztan Errugbi Taldeak. Ortziralero 20:00etan biltzen da taldea Lekarozen eta interesatua dagoena harat agertu daiteke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xaloa Telebista herriz herri

Nafarroako Mendialdeko 40 herrietako bizimodua eta errealitatea «ikuspegi positibo» batetik azalduko du Xaloa Telebistak dagoeneko abian duen *Herriz-herri* proiektuarekin. Herri bakoitzean zortzi erreportaje eta zuzeneko emanaldi bat egiten ari dira, eta horretarako herritarrei eta bereziki haurrei ematen diete protagonismoa. Proiektu honen berri emateko agerraldia egin zuten martxoaren 12an Xaloako eta Cedernako arduradunek –argazkian–. Prentsaurrekoan, Iñaki Alustiza proiektuaren koordinatzaileak, Izaskun Abril Baztan-Urdazubi eta Zugarramurdiko Cederna-Garalurreko teknikariak, Joseba Igarabide Xaloa Telebistako kudeatzaileak eta Martin Garde udal zinegotziak parte hartu zuten. Aipatu, egitasmo honek Cederna-Garalur elkartearen laguntza izan duela. Bertzalde, zenbait saio dagoeneko ikusten ahal dira Xaloa Telebistan, EAE Tokiko elkarte osatzen duten herri-telebistetan eta www.tokiko.tv Interneteko atarian.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Elizondoko aparkalekua zabalik

Elizondon, Elizaren ondoan Udalak egin berri duen aparkalekua zabalik dago dagoeneko. Autoz betea egoten da normalean, argazkian ikus daitekeen bezala.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 inuñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

ZUGARRAMURDI

SORGINEN AUZIA → 400. URTEURRENA

Sorginkeria leporatuta auzipetutako herritarrak gogoratu dituzte Logroñon

Hildakoen
omenez, 11
zugar landatu
dira

Koro eta Margari

Orain arte Logroño hiria guretzat «mamu beltza» izan da, harat eraman baitzuten gure jendea preso eta haietako aunitz han hil baitziren. Baina ospetxar hori nolapaite kentzeko bi ekitaldi egin dira sorgin-keriaren aurkako prozesuaren 400. urteurrena gogoratuz:

Martxoaren 9an Logroñora gan ziren 53 zuamurdiar, eta han,

bertze gauzen artean, epaiketa egin zen toki-an eta preso egon ziren tokian oroimenak paratu ziren.

Errioxako ordezka-riek martxoaren 27an itzuli zuten bisita. Egun horretan, Logroñotik hainbat lagun etorri ziren, eta bertze gauzen artean, hango musika-bandak kontzertu bat eskaini zuen leizean.

11 ZUGAR AZKETAN

Sutan erre zituzten 11 lagunen oroimenez, 11 zugar landatu dira Azketa inguruan. Lan hau martxoaren 16ean eskolako haurrek egin zuten.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Sutan erre zituzten lagunak gogoan, 11 zugar landatu dira Azketa inguruan.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Mendizaleak Atxuriako kaxkoan

Azkeneko urteetako usadioari segituz, 27 lagun igan ziren Atxuria punta-puntat martxoaren 14an. Ondotik Gaineko-bordan gosari goxo bat izan zen denentzat.

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
mainalireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**Udaberri-udako
kolekzio berria**

Tafalla, 13 • IRUÑA 948 230 634

SENPERE

LITERATURA → 27. IDAZLEEN BILTZARRA

Herritarren idazlan berriak agertuko dira Sarako Biltzarrean

Aguxtina Lassèguek eleberri bat euskararatu du

Franck DOLOSOR

Ohiturari jarraikiz, apirilaren 5ean, Sarako Idazleen Biltzarra ospatuko da eta auzoko herrirat ganen dira zonbait senpenter liburuak ikusteko, erosteko eta irakurtzeko. Bertze herritarbartzuek idazlanak presentatuko dituzte Sarako kiroldegian. Aguxtina Lassèguek *Holandarra eta Sarako sorginak* eleberriaren euskarazko itzulpena agertuko du, duela bortsu urte Marie Michèle Beaufils arbonarrak izkiriatu zuen *Le Hollandais et les sorcières de Sare* nobelaren itzulpena, hain xuxen. Bi emazteek loturak dituzte bien familiak Suhusku-nekoak baitira, Baxe Nafarroan. Berriki elgar eza gutu dute eta ohartu di-

ra herri berekoak izateaz gain, familiakoak ere badirela. Aguxtina biziki ezaguna da Senperen eskola emalea izan baita luzaz Arretxea kolegioan. 1965an hasi zen lanean haurrekin eta 1994an hartu zuen ongi merezia duen erretreta. Orain, denbora libreaz baliatzen da margoak tindatzeko eta izkiriatzeko, bertzeak bertze. Duela urte batzuk, *Konpostela* Bernadette Uhart lankidearen liburua itzuli zuen euskararatu. Orain, liburu berria plazaratuko du, urteetan matematikak irakatsi dituen andreak. Aguxtinak bertze hitzordu bat ere finkatu du irakurleekin maiztaren 8an Leku-Ona liburu eta egunkari saltegian, elizako plazan.

LAPURDI 1609-2009

Usteko sorginen kontrako auziak duela 400 urte egin zirela oroitarazteko lan eta lan ari da Lapurdi 1609 elkarteak eta orain liburu bat ateratze-



ARGAZKIA: ARANTXA LEIZAGOIEN

Senpenterren bazkaria

Martxoaren 18an, adineko herritarrek biltzarra zuten Ibarungo Boneteia ostatuan. Ongi bazkaltzeaz gain, elgarrekin dantzan ere aritu ziren.

kotan da. Hau ere Sarako biltzarrean plazaratuko da. Azken hilabeteetan herriz-herriz eman diren 10 mintzaldien laburpenak, argazkiak, Bai-nako antzokian otsailean egin zen bertsu saioiko bertsu onenak, Nestor Basterretxearen burdin zizel lanaren estrena eguneko oroigarriak eta Iguzki Lore antzerkia bildu dira, bertzeak bertze.

Hauteskundeak

Eskualdeko hauteskundeak iragan dira berriki eta Senperen ez dugu Akitanian bezala bozkatu. Gurean zentristek hartu dute lehen toki hori bi itzulietan. Gogoan izan behar da, Forces Aquitaines zentristen zerrendako seigarren hautagaia

Christine Bessonart andere auzapeza zela eta seguraski horrek esplikatu du herritarren hautua. Lehen itzulian, zentristek 441 boz izan zituzten, sozialistek 333, eskuindarrek 315, ekologistek 245 eta jeltzaleek 231.

Bigarren itzulian, Akitanian ezkerrek izan zuten lehen lekua (bozen %56,3); eta ondotik sailkatu ziren eskuindarrek (%28) eta zentristak (%15,7). Sailkapena arrunt desberdina izan da zentristak baitira berriz ere lehen tokian (746 boz, %40,5), ondotik ageri da ezkerria (616 boz, %33,4) eta azkenik eskuina (477 boz, %25,9). Parte-hartzea biziki apala izan da bi itzulietan bitik bat ez baita bozkaterat gan.

HERRI GALDEKETAK

Eskualdeko bozak baliatuz bi herri galdeketa egin dira jakiteko herritarrek zer dioten Lapurdi zeharka lezaken abiada haundiko trenbide berri buruz eta euskal elkar-go baten sortzeaz Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak biltzeko. Lehengaldeketa, 1.241 herritar trenbidearen aurka agertu ziren eta 105 alde. Bateria galdeketa, 854 lagunek bozkatu zuten (%21,07), eta 649 aldaketa instituzional baten alde agertu ziren (%76), 187 kontra (%21,9) eta 18k xuri bozkatu zuten. Batera plataformak biltzar nagusia eginen du apirilaren 17an emaitzen irakurketa egin eta geroa finkatzeko.

HAUTESKUNDEAK → BOZAK

335 herritarrek euskal lurralde elkargo baten alde bozkatu dute

EAJ garaile eskualdeko lehen itzuliko bozetan

Xan HARRIAGUE

Eskualdeko bozak zirela baliatuz, Batera plataformak Ipar Euskal Herriko euskal lurralde elkargo bat sortzeari buruzko herri galdeketa antolatu zuen plazan. 363 saratarrek parte hartu zuten, eta %92,3 alde agertu zen, %5,8 kontra, eta %1,9k zuri bozkatu zuen. Elkargo horrek ezagutzaren instituzionala emanen lieke Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xiberoari, eta orain arte Pauen edo Bordelen hartzen diren eraba-

ki anitz Baionan hartuko lirateke, elkargo horren gaitasunen arabera eskumen anitz gurera hurbilduko liratekeelako.

Horren aldekoek emaitza onak eskuratu dituzte. Baina parte-hartzea eskasa izan da (%19,3). Eskualdeko hauteskunderen parte-hartzea ere eskasa izan da %50era ez baita arribatu. Baina pena da jende horrek ez duela parte hartu Bateraren galdeketa, ados izan ala ez, ez baita ariketa demokratikoagorik iritzia ematea baino.

ESKUALDEKO BOZAK

EAJ izan da boto ofizial gehien bildu dituen alderdia (145). EHBai koalizioak protesta bozka edo



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Ongi etorri Imanol

300 bat lagun baino gehiagok ongi-etorria eman zioten kartzelatik atera berri den Imanol Larrañagari. Sortzez beratarra bada ere, urteak ditu gurean bizi dela. Opari anitz izan zituen Bera, Sara, Lesaka eta Zestoako (Gipuzkoa) lagunengandik. Berako eta Sarako bina dantzarik Aureskua dantzatu zioten, eta ondotik, Amets Arzallus bertsolariak ongi-etorria kantatu zion. Zestoako lagunek ere bertsu batzuk bota zizkieten. Ondotik, etorri ziren opariak: argazkiak, artelanak, eskulturak... Hitz hartzean Jose Angel Alzuguren *Kotto* 2005ean kartzelako bizi baldintzen ondorioz bere buruz beste egin zuen laguna izan zuen gogoan. Preso jarraitzen dutenei bisitak egin eta letrak igortzea animatu zuen, «anitz laguntzen dutelako». Ekitaldi osoan ondoan izan zituen kartzelan jarraitzen duten euskal preso-en senideak. Bazkaltzera joan baino lehen Allande Alfarok eta Karlos Aizpuruak azken bertsoak kantatu zizkieten, lehenak *Kotto* gogoratuz eta besteak nabarmenduz berriz plazer bat izanen dela berekin momentu goxoak pasatzea.

baliogabea galdetu bazuen ere gibelean gelditu da (140). Bozka aberzalea erraz nagusitu da oraingoan ere lehen itzulian. Hirugarren alderdi bozkatuena UMP izan da (119) eta laugarrena Mo-

Dem 111rekin. Alderdi sozialistak 95 bozka baizik ez ditu izan. Parte-hartzea oso apala izan da saratarren %41,6k baizik ez baitute bozkatu.

Bigarren itzulian parte-hartzea are eskasagoa

izan da. Herritarren %39,9k baizik ez du bozkatu UMP, MoDem eta PSFren arteko bigarren itzuli horretan. MoDem izan da nagusi (237), alderdi sozialistak 228 eskuratu ditu eta UMPk 182.

Euskaltzaindia Sarako XXVII. Idazleen Biltzarrean apirilaren 5ean, astelehenean

Nobedadeak:

Kantikak

Egilea: Gratien Adema "Zaldubi"

Paratzailea: Henri Duhau

Predikua zerbait

Egilea: Gratien Adema "Zaldubi"

Paratzailea: Henri Duhau

Jesü Kristen Inimitazionea

Itzulitzailea: Martin Maister

Prestatzailea: Jean-Louis Davant

Birjinia, edo denzeil cristaba

Paratzailea: Jose Antonio Mujika

Eslea - 2

Zuzendaria: Bernardo Atxaga



www.euskaltzaindia.net

EZKONTZAK

Tomas Oskoz Mutuberria eta **Izaskun Antzizar Iriarte**, Arantzakoa eta Lesakakoa, martxoaren 19an.
Jagoba Uhalde Elizalde eta **Ana M^a Garralda Martinez**, Zubietakoa eta Iruñekoa, martxoaren 22an Zubietan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Maialen Zoko Argain, Iruritikoa, otsailaren 26an.
Alba Feito Lopez, Lesakakoa, martxoaren 11n.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

M^a Nieves Elgorriaga Korta, Zalain Zokokoa, martxoaren 10ean, 73 urte.
Vicente Mitxelena Zelaieta, Iruritikoa, martxoaren 10ean, 87 urte.
Jose Mitxelena Telletxea, Lesakakoa, martxoaren 10ean, 88 urte.
Julian Zubiri Etxenike, Erratzukoa, martxoaren 10ean, 80 urte
Dominica Urrutia Goñi, Elizondokoa, martxoaren 12an, 94 urte.
Tomas Jaurena Dorremozea, Arizkungoa, martxoaren 15ean, 86 urte.
Periko Migeltorena Andiarena, Donamaria-Elizondo, martxoaren 17an, 86 urte.
Martin Petrirena Ordoki, Berakoa, martxoaren 18an, 94 urte.
Maria Telletxea Larretxea, Igantzikoa, martxoaren 17an, 77 urte.
Anastasio Otondo Maritorea, Elizondokoa, martxoaren 17an, 54 urte.
Mercedes Azkarraga Sarratea, Elizondokoa, martxoaren 20an, 96 urte.
Fermina Zarra Zubeldia, Igantzikoa, martxoaren 19an, 97 urte.
Juan Bautista Urroz Ezkurra, Saldias-Bera, martxoaren 20an, 67 urte.
Juan Irigoien Altzugarai, Igantzikoa, martxoaren 19an.



Timoteo IRIBARREN AGIRRE

Erratzun, 2010eko otsailaren 18an, 81 urterekin

*Gure ondotik isilik joan zara
guk uste baino lehen
Jaunak deitu zaitu zerura
eta gu hemen gaude triste
gure bihotzen erdian zaude
betiko zuri ahanzi gabe.
Ez adiorik, ez geroarte
baina agur elkartu arte*

ZURE FAMILIA



Joseba Andoni URDANITZ ETXEBERRIA

1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

VIII. URTEURRENA

*Udaberriak bizia ekarriz
Zure askatasun modua gogoratzen du
Zure ametsak buruan izanik
Zure indarra guria egiten dugu.*

GURASOAK ETA SENIDEAK

Rekordatorioak egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua*

KULTURKARI

Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

BERA → MENDI LASTERKETA

450 lasterkari apirilaren 11n eginen den Mendi Maratoi Erdian

Nafarroako Kopako lehen proba puntuagarria izanen da

TTIPI-TTAPA | BERA

Manttale Mendi Lasterketa taldeak antolatuta, aurten seigarren aldiz, Berako Mendi Maratoi Erdia eginen da apirilaren 11n. Gainera, joan den urtean bezala, Nafarroako Kopako lehen proba puntuagarria izanen da.

2.714,60 metroko desnibela izanen du eta 21,150 kilometroko luzera. Kilometro horietatik 9,72 malda goiti dira eta 10,96 beheiti. Ibilbideko puntu gorena, Larungo kaxkoa izanen da (900,40 metro) eta baxuena irteera eta helmuga puntuak: Berako herria (31,90 metro). Inoiz baino kirolari gehiagok eman dute izena aurten, antolatzaileek parte-hartzaile kopurua 400etik 450era igotzea erabaki dutelako. Aipatzekoa, halaber, dortsalak izen-emateko epea zabaldu eta 30 orduren buruan agortu zirela.

DORTSALEN BANAKETA

Dortsalak banatzen bezperan hasiko dira, apirilak 10. 17:00etatik 18:00etara kiroldegian ariko dira, baita lasterketa egunean ere, 08:00etatik 09:00etara.


Kiroldegian hasi eta bukatuko da lasterketa. 09:30ean abiatuko dira lasterkariak eta zazpi hornidura puntu izanen dituzte. Horrez gain, erretiratzeko hiru gune: Ibardin (6. kilometroa); Usategieta (10. kilometroa) eta Landagaintan (17. kilometroa). Antolatzaileek lehen lasterkaria 11:10 aldera ailegatuko dela aurreikusi dute eta azken sailkatuak 12:50erako egon beharko du helmugan. Lasterketa amaitzean, sari banaketa, opari- en zozketa eta luntxa izanen dira.

GAZTETXOAK ERE BAI

13-17 urtekoentzat 6,6 kilometroko ibilbidea izanen duen lasterketa ere eginen da, kiroldegitik abiatu eta Ibardinera, hain zuzen. Helduak atera baino hamar minutu lehenagotik hasiko da gaztetxoek proba hau, 09:20an.

ATERALDIA LASTERKETA IKUSTEKO

Jendeak Maratoi Erdia hurbiletik segitzeko, mendi irteera bat eginen da Usategietara. 09:00etan abiatuko da irteera kiroldegitik, gero handik helmugara itzultzeko. Hiru bat orduduz eginen da. Horrez gain, 08:30ean bertze mendi irteera bat eginen da korrikalariak Larunen ikusteko.



MANTTALE MENDI LASTERKETA TALDEA



Denboraldi berria hasi da

Joan den igandean ekin zion Manttale Mendi lasterketa taldeak denboraldi berriari, Sara Korrika Trail lasterketarekin. Hurrengo hitzordu nagusia Mendi Maratoi Erdia izanen da eta hortik aitzinera, hainbat lasterketetan parte hartzeko aukera izanen dute, tartean Espainiako Koparako baliagarriak diren batzuetan (Camille Extreme, adibidez, uztailaren 18an). Espainiako txapelketa indibiduala eta erkidego arteko maiatzaren 30ean eginen da Sabiñanigon, Puyada Oturia lasterketan. Klub arteko txapelketa, berriz, urriaren 10ean eginen da Gasteizen. Asfalto gainean ere aukera zabalda izanen dute.

Joan den urtean, bertzalde, 65 probetan izan zituen ordezkariak –33 mendi lasterketetan eta 32 errepidekoetan–, baina guztien gainetik oihartzun handikoa izan zen Iñigo Lasagarekin Mendi Lasterketen I. Nafarroako Kopan lortutako garaipena eta Txus Unsionek beteranoren kategorian erdietsitako azpitxapela. Gainera, Manttale bigarren sailkatu zen Euskadiko Klub arteko Txapelketan; Camille Extreme proban, Iñigo Lasaga, Iñaki Larrañaga, Txus Unsion eta Aitor Mitxelenak defendatu zuten taldearen elastikoa. Eta bakarkako zortzi garaipen lortu zituen: mendi lasterketetan Iñigo Lasagak hiru garaipen (Etxarri, Sara eta Zumarraga-Urretxun) eta Iñaki Pikabeak Urdazubin. Txus Unsion lehenengo beteranoa izan zen Baigurako Lasterketan eta Lorea Agirre, Hueskan. Zegama-Aizkorriko Maratoian, berriz, Iñigo Lasaga 18. postuan helmugaratu zen eta Unai Santamaria 30.a, aurtengo txartela eskuratuz. Errepideko lasterketetan berriz, lau garaipen erdietsi zituen: Kristina Arbuesek Bertizaranan eta Azkaineko Neska Korrikan; Jone Zelaieta Hiriburun eta Lorea Agirrek Agerran.

6-12 urteko gazteei zuzendutako Manttale Tiki atletismo eskola, bertzetik, indartzen ari da eta 50 gaztetxo bi multzotan banatuta ari dira.

Herrian ez ezik, pilotazaleen artean ere aski ezaguna da Angel Salaberria goizuetarra, urteak –ez du gogoratzen zenbat– baitaramazki pilota partidetan epaile.

Beste askok bezala, afizionatuetan pilotari izan, eta uzteko garaia ailegatu zitzaionean erabaki zuen epaile izan nahi zuela. Eta halaxe egin zuen. Epaile gisa urteetan egin

duen ibilbideaz eta azken aldian pilotari profesional batzuen jarreraren inguruan sortu den eztabaidari buruz mintzatu zaio TTIPI-TTAPARI.

Angel SALABERRIA | Goizuetako pilota epailea

«Pilotari profesional batzuen aldetik errespetu falta nabaria da»

G. PIKABEA | GOIZUETA

Pilota mundua «betidanik» gustatu izan zaio-lako hasi zen Angel Salaberria pilotako epaile lanetan. Afizionatuetan pilotari izandakoa da, eta pilota utzi zuenean, ez zuen hainbeste maite duen kirola alde batera utzi nahi izan. Horregatik erabaki zuen epaile izatea eta Nafarroako epaileen karneta atera zuen lehenbizi, eta gerora nazionala deiturikoa. Geroztik «urte mordoa» pasatu direla dio, eta zenbaitetan buruhausteak eragin arren, ez du utzi nahi.

Urteekin pilota mundua «asko» aldatu delakoan dago Salaberria, eta horrek epaile lana «zaildu» duela uste du: «pilotak oso biziak dira, abiadura haundia hartzen dutenak, eta ikusteko ere arazoak izaten ditugu batzuetan». Eta zenbait pilotari profesionalen jarrera ere ez omen da mesederako: «ez baita oso ona». «Elkarren artean, konpetentzia haundia dute, beti irabazi nahi dutelako, eta gainera, ez dute oso harreman ona...». Enpresa bereko pilotarien artean «pikkea» omen dago, eta «zer esanik ez beste enpresa-koekin».

PILOTARIEN JARRERA EZTABAIDAREN ERDIAN

Azkenaldian maiz solastu izan da pilotariak eta epaileak haserre da-



UTZITAKO ARGAZKIA

Abel Barriola eta Juan Martinez de Lujoren tartean ageri da Angel Salaberria goizuetarra, Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturako partida batean.

biltzala, batzuen erabakien eta besteen jarreraren ondorioz. Eta hala baieztatu digu goizuetarrak.

Pilota federazioen eta Enpresen Ligen artean ere bilerak egin dituzte pilotariak epaileekiko duten jarreraren inguruan. «Enpresatik kanpoko batzorde bat sortu nahi dute federazioek, edozein arazo baldin badago kontrolatzeko, baina enpresak ez dira aldekoak, ez baitzaie komeni pilotari on horiek geldirik egotea». Eta hortxe dabilta negoziatzen. Edonola

EZTABAIDA BIZI-BIZI
«Enpresatik kanpoko batzorde bat sortu nahi dute federazioek, edozein arazo baldin badago kontrolatzeko, baina enpresak ez dira aldekoak, ez baitzaie komeni pilotari on horiek geldirik egotea»

ere, Salaberriak argi du «pilotari profesional batzuen aldetik errespetu falta nabaria dela». «Gu ere pertsonak gara eta hanka sartzen dugu, eta egingo dugu, baina errespetua nahi dugu» dio.

Publikoari ere gauza bera eskatu dio, eta bereziki Labritekoari: «Eibar-ko Astelenan, adibidez, lasaiago egoten da publikoa, baina Labritera gazte asko joaten dira, berotu egiten dira eta oihuka eta txistuka hasten dira, gauzak botatzen. Zer ikustean ari garen...».

Pilotari guztiak, ordea, ez dira «odol-beroak». Eta Salaberriari askotan jogan omen zaizkio pilotariak barkamena eske: «partidak irabazi nahi dituzte eta jokatzeari direla berroaldiak izaten dituzte. Berotu direla esanez, pilotari onak etorri izan zaizkit barkamena eske; ez denak, ordea».

TELEBISTA 'TXIBATOA'

Epailearen tokitik eta telebistan partidak «diferente» ikusten direla ere aitortu digu goizuetarrak. «Guri ona iruditzen eta agian txarra ikusiko da telebistan, eta alderantziz. Alde horretatik, telebistak «beti txibato lana» egiten duela gaineratu digu. Hori bai, argitu digunez, «dudako kasuetan ez dugu eskurik altxatzen». «Askotan sartzen dugu hanka –dio– momentuan erabaki behar izaten baitugu». Halakoetan, etxera «kezka eta penarekin» bueltatzen dela aitatu digu.

Baina urteek eskarmentua eman diote Salaberriari, eta halako gorabeherekin «halabeharrez ohitu» egin dela adierazi digu. Eta badu segitzeko asmoa. Ez dugu goizuetarren bat finalean denean epaile ikusiko, «herritarrek ez didatelako uzten», baina bai maila haundiko beste edozein partidaren batean. Segi dezala bada urte askotan horrela.

PILOTA → BERRIA PILOTA TXAPELKETA

Berria Txapelketako finalaren atarian gelditu da Leitzako Aurrera

Aurrera-Saiazen kontra hirutik bi partida galdu dituzte

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Finalurrekoetan esan diote agur Leitzako Aurrerako pilotariak Berria Txapelketari. Martxoaren 19an jokatu zituzten Tolosako Beotibar pilotalekuan Tolosaldeko Aurrera-Saiaz taldearen aurkako partida erabakiorrak, eta hirutik bi galdu zituzten.

Kadeteetan, Aurrerako Anartz Olano eta Mikel Hernandorenak 22-7 irabazi zieten Labaka-



ARGAZKIA: AURRERA PILOTA ESKOLA

Aurrera (Leitza) eta Aurrera-Saizko (Tolosaldea) pilotariak ageri dira argazkian –Esain falta da–, talde bakoitzeko ordezkarri banarekin.

Elustondo Gipuzkoako bikoteari; jubeniletan,

berri, Urbieta-Zinkunegipuzkoarrek 22-7 irabazi zieten Xabi eta Jon Jaunarena Leitzako

anaiei. Seniorretan ere, garaipena Tolosaldera joan zen: Renobales eta Galarraga bikoteak, 22-15 irabazi zieten Aurrerako Iñaki Esain eta Mikel Iriarteri.

Hernani eta Markinako taldeak menean hartuta ailegatu ziren finalurrekoetara Leitzako pilotariak. Aurrera-Saiaz, ordea, ezin izan dute garaitu. Finalaren atarian gelditu dira, baina lan txukuna egin dute eta hori ere azpimarratzekoa da.

Galdakaoko Adiskide eta Aurrera Saiazen artean erabakitzeko auzua aurten txapelajoa den asteburuan.

PILOTA → LAXOA TXAPELKETA ABIAN

Bederatzi taldek hasi dute Laxoa Txapelketaren XXXI. edizioa

Arraioz, Irurita, Doneztebe eta Oizko taldeak dira

TTIPI-TTAPA

Joan den martxoaren 27an ekin zion Laxoa Txapelketak bere XXXI. edizioari. Bederatzi taldek eman dute izena eta abuztura arte ia asteburu guztietan partidak jokatuko dira. Arraioz, Doneztebe eta Oizek bina tal-

de aurkeztu dituzte eta hiru Iruritak.

Ligaxkaren bidez hasi da lehia eta taldeak bi multzotan banatu dira. Arraiozko eta Doneztebeko bi taldeak eta Irurita C, A multzoan ari dira eta Oizko taldeak eta Iruritako bertze biak B multzoan. Aldaketarik ezin, ekainaren 5 eta 6ra arte jokatuko dira ligaxkako partidak eta multzo bakoitzeko lau onenak final-laurdenetara pasako dira. Hauek ekainaren



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko Laxoa Txapelketako finalistak: gorritz Arraiozko taldea, iazko txapeladuna, eta zuriz Oizko taldea, azpitzapeladun gelditu zena.

20an, 27an eta uztailearen 4an jokatuko dira. Finalurrekoak uztailearen 11n, 18an eta 25ean egingen dira eta finala abuztuaren 1ean Oizen.

TALDEKIDEAK

Arraioz A: Iñaki Mihura, Jon Gamio, Asier Zubigarai eta Jesus Mari Launagarai; **Arraioz B:** Aitor Zubigarai, Sergio

Navarro, Aritz Alunda eta Dani Saldias.


Doneztebe A: Josu Juanena, Pascual Bertiz, Jokin Arraztoa eta Koldo Legarra; **Doneztebe B:** Asier Mutuberria, Jabier Almandoz, Jokin Apeztexea eta Juan Telletxea.

Irurita A: Jorge Azkarate, Migel Bidegain, Igor Urrutia eta Iñaki Etxandi; **Irurita B:** Guillermo Etxe-

nike, Joseba Urtasun, Jesus Etxenike eta Xabier Ripa; **Irurita C:** Karlos Goikoetxea, Xabier Barberena, Jagoba Ramos eta Xabier Bazterrika.

Oiz A: Sergio Fagoaga, Bittor Zelaieta, Iñaki Mendiola eta Juan M^a Mindegia; **Oiz B:** Jokin Ziganda, Iker Bereau, Ugutz Zelaieta eta Jose Agustin Mindegia.

apirilak 01-14

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Erakusketak**

ERRATZU | 2010.03.26/04.05

Diana Iniestaren margo erakusketa bere estudioan

Erratzuko bere estudioan *Atrapando instantes* izeneko margo erakusketa ikusgai jarriko du Diana Iniestak, egunero 16:00etatik 20:00etara.

Ospakizunak

BERA | 2010.04.08

Arkupeak elkartearen Gimnasia Eguna kiroldegian

Urteroko hitzordu garrantzitsua izaten da Arkupeak Erretiratuen Elkarterako Gimnasia edo Soinketa Eguna. Aurten ere Berako Toki-Ona kiroldegian izanen da.

Biltzarrak

SARA | 2010.04.05

Euskaltzaindiak Sarako XXVII. Idazleen Biltzarra antolatu du

Urteroko hitzordua ezarri du Euskaltzaindiak Bazko Astelehenez Saran: Euskal Idazleen XXVII. Biltzarra. Literaturzaleak kiroldegian bilduko dira.

tzalekuan gauerditik aitzinera. Sarrerak: 10 euro aitzinetik (Antxitonea eta Txokotona Elizondon, Atxaspi Lesakan eta El Infiernito Iruñean), 13 euro bertan.

ARANTZA**Danba taldea Aterpen**

Apirilaren 3an Danba taldeak kontzertua eskainiko du Aterpen 22:30etik aitzinera.

Antzerkiak**ELIZONDO****Ander Lipus Ardoaz Intzan ostatuan**

Apirilaren 1ean Ander Lipus-en Ardoaz bakarriketa Intza ostatuan 19:30ean.

ZUGARRAMURDI**Lezeetara bisita teatralizatuak**

Apirilaren 2 eta 3an *Ilargi betea sorginen larrea* bisita teatralizatuak eskainiko da Museoko plazatik lezeetara, 19:30ean. Aitzinetik erreserbatu egin behar da.

Hitzaldiak**IRURITA****Aroztegiako proiektuaz solasaldia**

Apirilaren 11n Aroztegi proiektuaren inguruko solasaldia egingen da Gizarte Bilgunean 17:30ean. Egitasmoaren eta haren ondorioei buruz argibideak emateko izanen da.

Tailerrak**ELIZONDO****Pintura tailerra**

Urtarrietik ekaina arte pintura tailerra Arizkunenea Kultur Etxean (17:00- 21:00). Apuntatzeko 609 329618 telefonora deitu.

Erakusketak**ERRATZU****Diana Iniestaren margo erakusketa**

Martxoaren 26tik apirilaren 5era Diana Iniesta margolariaren *Atrapando instantes* (Unek harrapatzen) margo erakusketa bere estudioan, egunero 16:00etatik 20:00etara.

IRURITA**Narciso Rotaren margo erakusketa**

Apirilaren 4a bitarte Narciso Rota margolariaren olio, akuarela eta esmalte lanen erakusketa izanen da Olari jatetxean.

URDAZUBI**Euskal pinturaren 50 urte erakusketa**

2011ko urtarrilaren 2a arte ikusgai izanen da Urdazubiko monastegiko klaustroan gaur egungo euskal margolari eta eskultore garrantzitsuenen 300 artelan. Asteazketatik ortziralerara 14:00etatik 18:30era. Larunbat, igande, besta eta opor egune-

tan 11:00etatik 19:00etara.

Feriak**ELIZONDO****Bertako artisau eta elikagaien Feria**

Apirilaren 3an bertako artisau eta nekazaritza elikagai feria plazan edo Merkatuko Plazako lehorpean.

ELIZONDO**Udaberriko Feria**

Apirilaren 9an azien-feria eta ahari le-

hiaketa izanen dira Merkatu Plazan. Bildots erretzea, bertako produktuen feria, txistulariak, dantzariak, txalaparta, Baztan-Zopak, sari banaketa eta dantzaldia.

LESACA**Udaberriko Azoka**

Apirilaren 11n antolatu du Lesakako Zerbitzuen Elkarteak. Komertzioetako produktuek prezio onean erosteko aukera. Xehetasunak 28. orrian.

PROPOSAMENA**ELIZONDO****Udaberriko Ferian Ahare lehiaketa**

Udaberriko Feriaren baitan, ahari lehiaketa izanen da aurten ere Elizondon apirilaren 9an. Bildots erretze erakustaldia ere egingen da eta bertako produktuen feria goizarratsaldez. Baztan-Zopen eta sari banaketa baino lehen, txistulari, txalapartari eta dantzariak giroa paratuko dute eguerdian, eta arratsaldean dantzaldia ere izanen da.



Ospakizunak

BERA

Arkupeak elkartearen Soinketa Eguna

Apirilaren 8an ospatuko da Arkupeak Erretiratuen Elkartearen Soinketa edo Gimnasia Eguna, Toki-Ona kiroldegian.

SARA

XXVII. Idazleen Biltzarra

Apirilaren 5ean, Bazko Astelehenez, Sarako XXVII. Idazleen Biltzarra eginen da Sarako kiroldegian.

Ikastaroak

BERA

Helduentzako dantza ikastaroa

Apirilaren 9an hasita 16 urtetik goitikoentzako dantza ikastaroa antolatu du Gure Txokoa Dantza Taldeak. Ortziralean, 19:30ean bilduko dira Eztegera pilotalekuan. Izen ematea, apirilaren 7a baino lehen.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Apirilaren 11n Hondarribiara joanen dira baztandararak.

BERA


Larun Ttikiren ateraldia

Apirilaren 11n Usategietara irteera eginen da, Manttala animatzerara. 09:00etan abiatuta lamoteneatik. Egun horretan Berako Mendi Maratoi Erdia jokatuko da.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.tטיפi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Loiolako hegiak

IÑAKI MURUA URIBI

Elkar, 2010

Zer gertatu zen Loiolan? Nola landu zen hainbertaine konplizitate eta josi hainbertaine sare, hura posible egiteko? Eta nola joan zen guztia pikutara, denen nahia hura aurrera ateratzea baldin bazen? Galdera horietatik abiatu da egilea, 2005 eta 2007 arteko elkarrizketa-prozesuaren kronika xehetarik egiteko. ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko solasaldiak izan ziren batetik, eta indar politikoen artekoak, bertzetik. Liburua idazteko, elkarrizketa luzeak egin ditu Muruak Loiolako negoziatzailetarekin hiru protagonistarekin: Jesus Eguiguren, Iñigo Urkullu eta Arnaldo Otegiarekin. Hiru solaskide horiek emandako informazioa eta bertze hainbat iturritan lorturikoa baliatuz, prozesuaren argazki zehatzak egitea lortu du, jende guttiak ezagutzen zuten datuak argituz. Kronika moduan dago apailatua liburuaren gorputz nagusia, eta eranskin gisa prozesuarekin zerikusia duten hainbat dokumentu eskaintzen ditu, kronologia batekin batera.

Musika



Ze esatek!

ZE ESATEK!

Baga Biga, 2010

Ze esatek! taldea 2008ko abenduaren 7an eratu zen. Entsegu lokalean bertsioak eta euren kantuak nahasian zihoazen bata bertzearen gibelitik. Ze Esatek! taldearen ideia Trikizio taldeak AEBtara egindako bidaia batean sortu zen: talde alaia, bestazalea eta algara ongi kudeatuko zuena zuten buruan. Hamar kide eta hamaika ibilbide musika atalean. Ze Esatek! taldea arin bezain indartsu iritsi da lehen diskoaren argitarapenera. 2009an taula gainean jotako abestiei bertze kantu sorta erantsi, eta diskoa grabatzea sartu ziren Paxkal Etxepare teknikari eta gitarra jotzaileak Hazparden eraikitako estudioara jo zuen Ze Esatek! taldeak 2009ko abenduan eta 2010eko urtarrilean. Hamar kide, batzuetan, nahikoak eta gehiago dira diskoa grabatzeko. Ze Esatek! taldeak ez du bertze laguntzailearik behar izan. Taldeak egiten duen musika proposamenak besta eta dantza batzen ditu. Doinuen algara artean doaz abesti guztiak.

Internet



Nafarroako Herri Kirol Federazioak orri berria

herrikirolaknafarroa.org

Nafarroako Herri Kirol Federazioak webgunea sortu du, kirol hauen inguruko jakingarriak sarean ezarriz, euskaraz eta gazteleraz. Hasierako orrian, emaitzak (Nafarroako Herri Kirol Jolasen azken ordua...), materialak, berriak eta argazkiak atalak ageri dira, bakoitza bere kolorearekin berezia. Argazkien azken atal honetan, erraterako, otsail hondarrean Italiako Cosenaticon jokatu zen Munduko sokatira txapelketako argazkiak ageri dira, Amaiurko mutilak eta Beti Gazteko neskak tartean direla. Federaziolari buruzko jakingarriak, Herri Kirolak zer diren eragutzera ematen dutenak (modalitateak eta txapelketak), estekak edo lotura interesgarriak (federazioak, taldeak, enpresak...), laguntzaileak eta kontaktua ere agertzen dira webgune erabilgarri honetan.

Nire aukera



Rosa ERRANDONEA
Berako jubilatua

Bidaiatzea da nire afiziorik handiena, baina argazkiak biltzea ere gogoko dut

Jubilatu zenetik denbora aunitz eskaintzen dio Rosa Errandonea Berako argazki zaharrak biltzeari. «Aunitz gozatzen dut afizio honekin –dio–, jendearekin solasteko eta lehenengo denborak gogoratzeko aukera ematen nau. Niretzako oparirik onena aitzinako argazki bat da». Halere bere afiziorik handiena bidaiatzea dela onartu du: «Hori da gehien gehien gustatzen zaidana. Bidaiak guztiak gustatzen zaizkit eta ez nuke bat aukeratuko, denak ezberdinak direlako eta denetan jende interesgarria ezagutzen dudalako». Zinea, antzerkia, erakusketak... ere gustatzen zaizkio. Gaitu beharreko ikasgaia irakurketa duela onartu digu, «ez dut uste gaitutuko dudunik». Jubilatua izanik ere, asteburuaren kontzeptua barneratu dauka oraindik. Eta astebururako plana? «larunbatean lagunekin ateralditxoa egin, igande goizean mendian pixka bat ibili eta arratsaldean pelikula bat ikusi. Hori bai, zinemaren, ez telebistan».

5 behi eta poni bat salgai. ☎680 265671.

Ahari mutur zuri eta mutur motza salgai. 2 urte ditu. ☎948 634057.

2 urteko **ahari mutur gorria** salgai. ☎606 645479.

DENETARIK
galdu-aurkituak

ZALAIN ZOKO. Trenbidean betaurreko graduatuak aurkitu dira. ☎948 630052.

Remolke baten hanka edo katua galdu nuen martxoaren 20an Beran edo Beratik Donezteberako bidean. ☎628 123026.

DENETARIK
salerosketak

Belar idorren boloak eta lastoa salgai. ☎690 776147.

Ferrol **gasolio berogailua** salgai. Oso egoera onean eta gutxi erabilia. ☎618 962777.



Ardiak bazkatzeko alde bakarreko burdinezko **segalea** salgai, 18m x 70 m neurrikoa eta 20 ardi irezteko burdinezko segalea bere aulki mugikorrenekin. ☎619 116995.

Animalien pasabidea mugatzen duen burdinezko parrilla sendoa salgai, 3,10m x 1,70m neurrikoa. ☎619 116995.

Behien **txuleta zintak eta solomilloak** salgai. Oso haragi ona eta prezio onean. ☎659 751411.

Aziendak garraiatzeko **remolkea** salgai. ☎676 595309.



**UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA XEHAKATUA (UEFko 7. sektorea),
HASIERA BATEZ ONESTEA**

Berako Udalak, 2010eko otsailaren 18ko bilkuran, Udal Plan Orokorraren 7. Sektoreko UEF unitatean aldaketa xehakatuaren espedientea hasiera batez onestea erabaki zuen.

Espedientea jendeaurrean izanzen da hilabete batez, iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ematen denetik kontatzen hasita.

Udal Plan Orokorraren aldaketa honek eragindako zonaldean, hots, 7. Sektoreko UEF unitatean (13. poligonoa, 259. lur-saila), obra baimenak ematea eten gelditzen dira.

Bera, 2010.03.16

ALKATEA

Josu Iratzoki Agirre

2010ean ere...
Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

ttipi-ttapa geure bezeroek aukeratutako proiektua can

Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde proiektu zenbakia:
15.996

Eskatu ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2010eko abenduaren 31a baino lehen.

Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Erratzuko **IRAIA BENGOTEXEA** BIDEGAIKIN urtea beteko du apirilaren 6an. Zorionak eta muxu pottolo bat Idaborroko familiaren partetik.



Josu **ETXEPETE-LEKU BURGETE** lesakarrak 4 urte bete ditu martxoaren 31n. Zorionak motoristari familiaren partetik. Ea noiz egiten duzun merendola?



Andoni **MINDEGIA ETXEPARE** auriztarrak 11 urte beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak eta bi muxu haundi Lesakako osaba-izeben partetik.



Asier **TELLETXEA APEZTEGIA** berrakarrak martxoaren 20ean 8 urte beteko ditu. Zorionak familia eta bereziki Andoni-aren partetik. Aupa txapeldu!



Janire **MARTIN GOIA** lesakarrak 10 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak eta muxu pila gure neskatza politari. Aunitz urtez!



Zugarramurdiko **MAIALEN ETXABE OIHAGARAYK** 6 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak eta sei muxu haundi!



Aurtizko **EKIÑE MINDEGIAK** apirilaren 2an 12 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Eratsungo familiaren eta bereziki Naroaren partetik. Berendu goxoa prestatu!



Tolosako **ENERITZ eta UXUE GASTESI** TOLOSASK urtea bete dute. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Leitzako izeba M^a Joseren partetik.



Ibon **IRASTORZA URDANITZ** berrakarrak martxoaren 30ean 10 urte egingen ditu. Zorionak gure morroskoari etxekoaren partetik. Muxu bat.



Olatz **IRIARTE ITURZAETAK** apirilaren 13an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu bat etxekoaren partetik gure 'su-per eskiadorari'. Merendua noiz?



Ei **BIRJINIA** beste urte bat gehiago! Zorionak eta muxu haundi bat taldekoen partetik eta ez ahaztu berendu goxoa entsaiora ekartzeaz! Ongi pasa!



Zubietako **ANE ANSOK** apirilaren 9an 12 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztien partetik, eta bereziki Nahiararen partetik. Ongi pasa eguna!



65 urte ezkonturik!!! Leitzeko Goiko Soroako **JOXE MIGUEL eta PAKITAK** apirilaren 4an egingo dituzte. Zorionak eta besarkada haundi bana familia guztiaren partetik.



GANIXEK eta OIHANAK apirilaren 5ean eta 7an 11 eta 5 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik. Segi horrela!



Izeba **AINARAK** urteak beteko ditu apirilaren 1ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Oier, Enea eta kuadrilla guztiaren partetik. Etzazula horrenbertze lan egin e!



Aunitz urtez potxola! Hagitz ongi pasa zure eguna eta ea berendu goxo bat prestatzen diguzun. Muxuk. Kaxkarrak.



Aizoaino **IRAIA REMIREZ PERURENAK** 2 urte beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak Iturengo amatxi, izeba-osaba eta osaba, Naroa eta Unaxen partetik.



Sunbillako **KOLDO HERRERA URROZI** zorionak martxoaren 25ean 7 urte bete dituelako. Ongi pasa eguna eta mila muxu bere lagun tikiak diren Iraide eta Garaineren partetik.



Aizoaino **IRAIA REMIREZ PERURENAK** 2 urte beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak gure etxeko txikiari ama, atxa eta bereziki ahizpa Janireren partetik.

URTEBETETZEAK

ZORIONDU
Internet bidez

www.ttipi.net

KRISI-KONTRAKOGAUA

APIRILAK
1
OSTZEGUNA

LURUJOTAK-
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

CHUCHIN IBAÑEZ

APIRILAK
3
LAGUNBATA

+MARIACHI CIUDAD DE ACAPULCO

LURUJOTAK-
DJNASH

00:00 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

KAOTIKO REACCIONA TOUR

APIRILAK
10
LAGUNBATA

LURUJOTAK-
DJNASH
DJ JULEN

00:00 10€ Aurretik 13€ Bertan
Salmenta puntuak: Elizondo; Anbitonea, Txokoto | Lesaka; Atxaspi | Irufia; El Infiernito

KRISI-KONTRAKOGAUA

APIRILAK
17
LAGUNBATA

LURUJOTAK-
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

KRISI-KONTRAKOGAUA

APIRILAK
24
LAGUNBATA

LURUJOTAK-
DJNASH

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

ETALAISTER...
BARRICADA, S.A,
SEIREN...

Lur



WWW.LURELIZONDO.COM



Oso gutxi kostatzen da zure
Renault-aren segurtasuna mantentzea

-%50 BIGARREN
NEUMATIKOAN
MUNTAKETA ETA OREKA BARNE



www.renaultservicios.es



**RENAULT
SERVICIOS**

RENAULT BAKARRIK
ZURE RENAULT-AREN MAILAN DAGO

RENAULT recomienda **elf**



PEDRO GARMENDIA CTRA. FRANCIA, KM 5,7. 31700 ELIZONDO. TEL. 948 580 431

TALLERES SANTESTEBAN CTRA. DE LEIZA, 80. 31740 SANTESTEBAN. TEL. 948 450 282

BERAUTO AUTOMOTOR CTRA. NACIONAL 121 A, KM 73. 31780 BERA DE BIDASOA. TEL. 948 630 621